

Gipuzkoako 1936ko “izu urdinaren” bi kasu alderatuta: Beasain eta Arrasate

Gipuzkoa en 1936: análisis comparativo del “terror azul” en dos localidades: Beasain y Mondragón.

Gipuzkoa en 1936: analyse comparative de la “terreur bleue” dans deux municipalités: Beasain et Mondragón.

Kortazar-Billelabeitia, Jon.

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

Hartua: 2018.10.01

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2018), 42; 29-50]

Onartua: 2018.11.30

Artikulu honetan, Gipuzkoan 1936ko uda-udazkenean gertatu izan ziren bi kasu errepresio konparatuko ditugu, bi herri ezberdinetan eman zirenak: Goierri eskualdeko Beasain bata, eta bestea Deba Garaiko Arrasate. Bi herri hauek, ordurako populazio tamaina handia zutenez, euren eskualdeetako herririk populatuena izanik, antzeko fisonomia zuten: biak ziren Gipuzkoako industrialtzearen aitzindari, eta beraz, langile mugimendu indartsu bat izan zuten. Baina jaso zuten errepresio motarekiko ere nahiko antzekoak ziren euren artean: biak momentuko errepresio bortitz eta handia jaso baitzuten. Artikulu honetan bi kasuen antzekotasunak eta ezberdintasunak ikertuko ditugu Gipuzkoan izan zen errepresioari buruz argazki zehatzago bat jaso dezagun.

Hitz gakoak: Beasain, Arrasate, 1936, gerra, errepresioa

En este artículo compararemos dos casos de represión que se dieron en dos pueblos de Gipuzkoa durante el verano-otoño de 1936: en Beasain, en la comarca de Goierri; y en Arrasate-Mondragón, en la comarca del Alto Deba. Estas dos localidades compartían muchas similitudes debido a su similar tamaño poblacional, bastante grande para la época, que hacía que cada una fuese el mayor pueblo de su comarca. Su fisonomía era también semejante: ambos eran dos pueblos pioneros en la industrialización de Gipuzkoa, cobijando un importante movimiento obrero. Pero por otro lado, el tipo de represión que sufrieron también los empareja: ambos municipios sufrieron una represión que fue a la vez masiva e instantánea. En este artículo nos fijaremos sucintamente en las similitudes y diferencias de los dos casos y trataremos de contribuir al retrato general de la represión en Gipuzkoa.

Palabras claves: Beasain, Mondragón, 1936, guerra, represión

Dans cet article, nous comparerons deux cas de répression survenus dans deux villes de Gipuzkoa au cours de l'été-automne 1936: à Beasain, dans la région de Goierri; et à Arrasate-Mondragón, dans la région de l'Alto Deba. Dans cet article, nous examinerons brièvement les similitudes et les différences entre les deux affaires et essayerons de contribuer au portrait général de la répression au Gipuzkoa.

Mots-clés: Beasain, Mondragón, 1936, guerre, répression

1. SARRERA: BI HERRI INDUSTRIALEN GARAPENA 1936 AURRETIK

Artikulu hau, batez ere, Beasaingo herrian hiru urte eskas ikertzearen ondoren burutu dudan tesiaren ondotik datorren artikulu bat da¹. Urte horietan eman dudan ikerketaren ondorioz, Beasainen gertatu izan zen errepresioaren inguruan, eta hau eragin zuten dinamiken inguruan ezagutza pilatu dut. Beasainen gertatutakoak Gipuzkoako markoan ezartzerakoan, atentzioa deitu izan zidan antzeko kasu bakar bat gertatu izan zela: Arrasateren kasua. Beraz, bi kasu hauek xeheago aztertu beharra ikusi dut.

Hala ere, hasi aurretik, gauza bat esan nahiko nuke: esan beharra dut, nik neuk egindako ikerketen ostean, Beasaingo kasua hobe ezagutzen dudala. Goierriko herriari buruz atera izan diren hainbat artikulu zein herri-testigantza bildu izan ditut, artikuluan zehar aipatuko ditudanak². Arrasateri buruz, Errepublika eta Guda Zibila marko konkretu hau mintzagai dituzten bi liburu ezagutzen ditugu: Juan Ramon Garaik Celestino Uriarte komunistari buruz atera duen biografia³, eta Oktubre Taldeak herriko errepresioari buruz eginiko oroimen-historiako lan kolektiboa⁴. Bestetik, Arrasateko Udal Liburutegiaren Artxibategian aurkitzen diren Jose Maria Uranga herriko historiagile eskuindarraren idatziak ere iturri gisa erabili ditugu. Idatzi hauetan, informazioa eta egilearen iritzia nahasten badira ere, pertsonaren lekukotasunak garrantzi handia ematen dio iturriari.

XX mende hasieran Gipuzkoan aurrera-jauzia egin zuen industrialtzearen oinarrietako bi ditugu bi herriok, batez ere herrialdearen industrialtzearen ikur izan den fabrika bana izan dutelako⁵. Beasaingo CAF izen horrekin 1917an

1. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: *Errepublika, Guda Zibila eta Frankismoa tokiko eremu batean*. Beasain. Doktorego-tesia. UPV-EHU. 2017ko maiatzean defendatua. Artikulu hau idazteko unean, tesi honetatik eratorri beharreko liburua inprimategirako bidean da.

2. Hemen aipatuko dut agian momentura arte beteenak izan direnak. Lehenik, Juan Jose Garcia Urcelayetarena aipatuko dut, zuzeneko testigantza dakarrena: momentuan bera ere erailtzear egon baitziren (GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: "Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)", in *Ikuska* aldizkaria, 3. zkia. (56-74. or.), 1993ko uztaila-iraila). Gerora, Mauro Elizondorena, aurrekoari zuzenketa batzuk egin zizkiona (ELIZONDO, Mauro: "Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)" in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua). Azkenik Miguel Angel Lopez Gonzalezek berak zuzendutako Beasaini buruz idatzitako liburu batean Guda Zibilarri buruz idatzi zuen kapitulua, agian nik lana egiteko erabili dudan hildakoen zerrendarik fidagarriena aurkezten duena (LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Gerra Zibila: Beasainen erorketa" in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.).

3. GARAI BENGOA, Juan Ramon: *Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2006.

4. OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Arabera. Arrasate, 2003 (2. edizioa).

5. Beasainen, Guda aurreko garaian izan zen industrialtze prozesuari ikuspegi zabalago batetarako, ikus ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarre modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993; eta OLAIZOLA ELORDI, Juanjo eta GARCIA GARMENDIA, Martin:

sortu zen, baina bere aurrekaria *Fábrica de Hierros San Martín de Urbieta* 1862koa da, nahiz eta 1892an hasi trenentzako materiala egiten, eta pixka bat geroago, 1904an, bagoiak (orduak, fabrikak kapital hazkunde eta fusio prozesu bat izan zuen, instalazioen berritzen prozesuarekin batera. Bagoiak egiten hasteko momentu hartan, *Sociedad Española de Construcciones Metálicas* deitzen zen enpresa)⁶. Arrasateko *Unión Cerrajera*, aldiz, 1906an sortu zen, aurreko bi enpresek, *Vergarajáuregui, Resusta y Cía* (hau 1869an sortu zen) eta *Cerrajera Guipuzcoana* enpresek bat egin ostean⁷. Gipuzkoako industrialtzearen garapenaren hastapen-prozesua XX mende hasieran izan zelarik, enpresa hauek zutarri izan ziren, Unai Belaustegiren arabera, Tolosako papergintza-fabrikarekin batera⁸.

1911rako, Gipuzkoako lantegien batzuek 19 langilekoa zen unean, Beasaingo fabrikak 1.200 langile zituen eta Arrasatekoak 700; 1913an Beasaingo fabrikak jada 1.300 langile zituen⁹. Ez ziren herri hauetako fabrika bakarrak. Arrasaten, adibidez, *Elma* fabrika eratu zuten 1924an Unión Cerrajerako langile ohi batzuek¹⁰. Parra eta Aramendiaren arabera, zazpi fabrika zeuden Arrasaten 1931n¹¹. Beasainen, ordea, bagoien fabrikaz gain, 1913an *Bernedo, Echeverría y Elorza* fabrika sortu zen, Victor Bernedo 1936an Beasaingo alkate sozialista izan zenaren eskutik. Fabrika honek ere izaera berritzailea zuen: Espainiako Estatuan horztun giltza mugikorrek zein giltza finkoak fabrikatu zituen lehena izan zen¹². Beste fabrika batzuk ere bazeuden, adibidez, 1901an Arana eta Hunolt familiek sortutako produktu kimikoen fabrika. Beasainen, 1925erako hamasei fabrika edo tailer industrial zeuden¹³. Modernizazioaren beste puntu bat, garraioarena izan zen. Beasainek kasu

Bagoi fabrika eta haren eragina Beasainen eta Ordizian (1901/1925). Ordiziako Udala. Ordizia, 2016.

6. CAFen historia zehatzago batetarako, ikus LEGORBURU FAUS, Elena: "*Fabrika haundie*". *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996; eta OLAIZOLA ELORDI, Juanjo eta GARCIA GARMENDIA, Martin: op. cit.

7. PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: *Arrasate, langileek eraikitako herria*. Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Arrasate, 2004, 18-21. or.; eta BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. EHU. Euskal Herria, 2014, 220-221. or.

8. BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: op. cit. 220. or. Honi buruz gehiago, adibidez: LUENGO TEIXIDOR, Felix: *Crecimiento y cambio social: Guipúzcoa 1917-1923*. UPV-EHU. Euskal Herria, 1990; eta CASTELLS ARTECHE, Luis eta LUENGO TEIXIDOR, Felix: "El proceso de modernización de Guipúzcoa (1876-1920)" in *Ekonomiaz: revista vasca de economía*, 9-10. zkia. (255-276. or.), 1988.

9. LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 52-53. or.; eta OLAIZOLA ELORDI, Juanjo eta GARCIA GARMENDIA, Martin: op. cit., 109. eta 113. or.

10. *Ibid.*, 24-25. or.

11. *Ibid.*, 18-29. or.

12. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: op. cit., 36-37. or.

13. OLAIZOLA ELORDI, Juanjo eta GARCIA GARMENDIA, Martin: op. cit., 314-326. or. Kontaketa honetan, soilik fabrika industrialak kontatu ditut, lanbide tradizionalak eta saltzaileak aparte utziz. CAFen ur-ekarketak egiteko zentraltxoen kontzesioak ere aparte utzi ditut.

honetan abantailarekin jokatu zuen, bere kokapena hobea baitzen, hori dela eta trenbidea lehenago iritsi zen hara: 1863an Donostiarako sarea ireki zuten eta 1984an Altsasurakoa¹⁴. Arrasatera 1919an iritsi zen, Eibar eta Gasteiz lotzen zituen linean¹⁵.

Industriak bi herrien hazkundera ekarri zuen: Arrasate, XX mende hasieran 3.000 biztanlera iristen ez zen herria, 1930ean, 7.500 biztanletik gorako herri bat zen¹⁶. Beasain, momentu horietan herri txikiagoa zen, 5.260 biztanle zituen; hala ere, honen hazkunde prozesua Arrasaterena bezain handia izan zen; 1900an, 1.910ko populazioa baitzuen, %172ko hazkundera¹⁷. Zurbano Meleroen arabera, jada 1910erako, Beasainen kaletar gehiago zeuden baserritar baino¹⁸. Bi herriok, 1930an, Gipuzkoan 5.000 biztanleen kopurua gainditzen zuten 16 udalerrien artean zeuden¹⁹. Hazkunde honek, bai Beasain zein Arrasate 1900-1930 artean Gipuzkoako bost hazkunderik handiena zuten herrien zerrendan sartzeko moduko hazkundera izan zuten²⁰. Beraz, bi herrietan, batez ere enpresen hazkundeak ekartzen zituen langile berriak ekartzeko, zabalkunde proiektuak eman izan ziren, bietan enpresa pribatu handien eta Udalaren elkarkidetzak eramanda: Beasainen halako lehena 1902 eta 1907 artean egin zen, Bideluze inguruan, eta 20. hamarkadan Geltokirako bidean²¹. Arrasaten Maala kalean egin zen lehen zabalkunde bat 1924an²².

14. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 19. or.

15. Izan ere, proiektua lehenagokoa bazen, eta 1889an Gasteiz eta Leintz-Gatzagako Arlaban mendia batzea lortu bazuten ere, arazo finantzarioek proiektua atzeratu egin zuten. VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Mondragón en su historia (y en cuatro horas)*. Autoedizioa. Arrasate, 2014, 50-51. or.

16. PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 30. or.; eta VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Mondragón en su historia...*, op. cit., 50. or.

17. AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 28. or.; KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: op. cit., 50-51. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 46-49. or.

18. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 46-49. or.

19. GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karme: "“Leer y escribir”: desarrollo y modernización social. El

País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)" in GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA

GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karme (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea* (311-341. or.). UPV-EHU. Euskal Herria, 2011.

20. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica social. (1931-1936)*, Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 33. or.

21. KORTAZAR-BILLELABETIA, Jon: op. cit., 43-45. or.; eta ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia (Beasaingo paperak 4. zk.)*. Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70. eta 74-77. or.

22. PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 30-31. or. Auzo honi buruzko informazio handiagoa: VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Maalako Errebala*. Arrasateko Udala eta Kutxaren

Hiriak ere aldatu izan ziren, argia eta ura bezalako zerbitzuak ekarri behar zirelarik: Arrasaten argi elektrikoa 1894rako ezarri zuten, 1896an edateko ur sistema jartzeaz eta 1906an estolda- sarea egiteaz gain²³. Beasainen, lehen ur ekarketa XIX mendean egin zen, baina 1909an izan zen lehen ur-ekarketa handia²⁴. Bi herriak, Jose Antonio Rodriguez Ranzen sailkapenaren arabera "Gipuzkoa hiritarreko" herriak ziren²⁵.

Hala bi herrietan izan zen langile mugimendu indartsu bat. Zenbait egileren arabera, Gipuzkoako langile mugimendua, Eibar eta inguruak salbu, nahiko ahula izan zen²⁶. Beasaingo langileen lehen elkarteak 1904an sortu zen, baina hura aisialdi-elkarte bat izan zen: *Casino Recreativo*, Zurbano Meleroren arabera "kultura liberala" zabaltzen lagundu bazuen ere. Lehen Elkarte Sozialista XX mende hasieran jaio zen, baina oso bizitza laburra izan zuen, 1909an desagertu zelarik. Hurrengo saiakera, arrakastatsua izan zena, 1915an izan zen²⁷. Beste langile- mugimenduen artean; 1917an sortu zen ELA²⁸, urte horretan bertan sortu ziren eliz-sindikatuak²⁹ eta 1920an sortu ziren anarkistak izan ziren³⁰. Arrasaten ordea, Leire Parra eta Isabel Aramendiaren arabera, 1912an bi sindikatuk funtzionatzen zuten: bata *Asociación Obrera*³¹ eta bigarrena *Sindicato Profesional*. 1919an lehen sindikatua desagertu egin zen, eta bigarrena *Sindicato Libre*, eskuineko joerakoa, bihurtu zen³². Urte

Gizarte Ekintza. Arrasate, 2000, 32. eta hurrengo or.

23. PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 32. or.

24. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: op. cit., 45. or. eta ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia (Beasaingo paperak 4. zk.)*. Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 13-14. or. eta 68-70. or.

25. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa Donostia Kutzaren Gizarte-ekintza. Donostia, 1994, 33-51. or.

26. Adibidez, ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 118. or.; FUSI, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 178-180. or.; LUENGO, Felix: op. cit., 321. or.; eta CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993, 13-17. or. Kasu honetan, aipatu behar dugu Goierriin izan zen lehen ekitaldi sozialista 1900an Pablo Iglesiasek Ordizian emandako mitin bat izan zela, baina hura Iglesiasen bira politiko baten parte izan zen, ez zen Ordiziako antolakunde sozialistaren isla, eta ez zuen jarraipenik izan (EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 24. or.).

27. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 89-90. or.

28. MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 145. or.

29. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 120-121. or.; eta CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco...*, op. cit., 48. eta hurrengo or.

30. LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 71. or.

31. Juan Ramon Garairen arabera "sektore abertzaleak eta liberal errepublikanoak biltzen zituen". GARAI BENGOA, Juan Ramon: op. cit., 27. or.

32. Hala ere, Errepublikara garaian *Sindicato Libre Profesional* terminoak erabiltzen zituzten, Jose Maria Uranga tokiko historiagileak batu duen moduan. Ikus URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Sindicato Libre Profesional" (dokumentu-bilduma). Arrasateko Udal Liburutegiko Artxiboa. Uranga funtsa, 36 espedienteak. Bestalde, beste idatzi batean, Uranga berak, karlista izaki, badio sindikatu hau "karlisten adar sindikala" zela. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en

horretan sortu zen baita ELA Arrasaten; eta Parra eta Aramendiaren arabera, "garai horietan" UGTren eraginpeko *Sindicato Obrero Metalúrgico* sortu zen³³.

Gipuzkoako langile-mugimenduak I Mundu gudan izan zuen gorakadak, 1917tik aurrera izan zuen greba-zikloarekin dugu: 1917an greba iraultzaile bat izan zen, eta 1918-1920 artean grebak ugaritu egin ziren³⁴. Alta, bi herrietan ditugu langile mugimenduen mobilizazioak data horren aurretik: Arrasaten 1893an izan zen lehen greba, eta 1915an lanuzte bat izan zen, 1916ko greba handiaren aurretik³⁵. Beasainen, lehen greba mende aldaketa garaian izan genuen, baina antza denez ez da testigantza handirik geratu greba honi buruz³⁶. Baziren baita ere, bi herrietako langile mugimenduaren arteko harremanak: adibidez, 1907an, Beasaingo fabrian izan zen greba bat, Jose Gabriel Zurbanoren arabera, Arrasateko mugimendu batekin konektatuta zegoen³⁷. Juan Pablo Fusiren arabera, 1916an Beasainen beste greba bat izan zen, Arrasateko mugimendu batekin bat eginik³⁸.

1930rako, bi herriak, modernizazioari dagokionez, Gipuzkoako puntan ezartzen direla argi ikusten dugu; adibide bat, bi herrietako fabrika handienak 1930an 1.000 langiletik gorako fabrika bakarrak izatean zetzan³⁹. Modernizazio hau, bi herrietan zegoen pluralismo politikoarekin alderatu genezake. Beasainen, adibidez, 1931erako lau alderdi politiko zeuden antolatuta: sozialistak, errepublikanoak, jeltzaleak eta karlistak⁴⁰. Honi

Mondragón desde 1.930 en adelante". Arrasateko Udal Liburutegiaren Artxiboa. Uranga funtsa. 36 espedientea. Urangak hirugarren idatzi batean badio antolatutako lehen talde katolikoa, sindikala eta aisialdia artekoa zena, 1904an sortutako Langile Zentru Katolikoa zela, 1977an itxi zena. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "El Centro Obrero Católico". Arrasateko Udal Liburutegiko Artxiboa. Uranga funtsa, 36 espedientea.

33. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 29. or.; eta PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 50. or.

34. Ikus, adibidez; CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco...* op. cit..

35. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 31-40. or.

36. LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain" in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak). Donostia, 1988, 95. or.

37. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 118. or.

38. FUSI, Juan Pablo: op. cit., 368-369. or.

39. Adibidez, BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa...*, op. cit., 48. or.; eta PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 55. or. Urangaren arabera, "1930an, Arrasateko *Unión Cerrajeran*, enplegatua eta langileen artean 1.400 pertsona ginen". URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea "Una generación cortada. Arrasate 1.936", 1987. Arrasateko Udal Liburutegiaren Artxiboa. Uranga funtsa. 36 espedientea.

40. Lehen elkarte komunista 1936an zabaldu zen Beasainen.

bertan zeuden bi langile-sindikatu⁴¹, nekazari-sindikatu bat⁴², eta hiru aisialdi-elkarte batu behar dizkiogu: *Casino Recreativo Beasain Club de Fútbol*⁴³, *Sociedad Recreativa Ferroviaria* eta *Usurbe*⁴⁴. Arrasateko elkarte politikoen pista aurkitzea ez zait hain erraza izan, baina jakin badakigu hiru sindikatuez gain, hainbat alderdi ere antolatuta zeudela: adibidez, liberalek zein karlistek presentzia handia izan zuten herrian. Liberalek Pedro Viteri filantropoa zuten figura nagusi gisa, herriarentzat eskolak egin zituen; hainbatekoa zen bere eragina Arrasaten liberalei "viterista" deitzeko punturaino. Arrasateko Zentro Errepublikanoa 1906an ireki zen, urte horretako hauteskunde kanpainarekin batera⁴⁵. Karlistak ordea lehen indarra izan ziren urte luzez Primo de Riveraren diktadura indarrean jarri arte. Indar berriak gerora agertu ziren, jeltzaleak adibidez: batzokia 1908an zabaldu zen, eta Oktubre Taldearen lanaren arabera, 1912 eta 1914 artean zein 1923an alkate jeltzalea izan zuen Arrasatek⁴⁶. Sozialisten elkarte 1927-28 aldera sortu zen⁴⁷. Bazegoen baita beste alderdi bat: Eusko Abertzale Ekintza, Arrasaten Gabriel Goitiak zuzentzen zuena. Bestalde, 1934rako militante komunisten nukleo bat ere izan zen, oso txikia bazen ere⁴⁸.

Errepublika iritsi zenean, ere, bi herriak Gipuzkoan ezkerrearen presentzia indartsua izan zen Gipuzkoako udalerrri apurrenetakoan ziren. Jose Antonio Rodriguez Ranz ikerlariaren arabera, Gipuzkoako ezkerreko bozka herri handi eta industrialetan kontzentratzen zen orduan. 1931an, bi herrietan ezkerreko hautagaien garaipena izan zen. Arrasaten, hamalau zinegotzietatik zazpi

41. UGT eta ELAri 1931an eratuta zeuden. 1934an eskuineko Sindikatu Profesional Katolikoa sortu zen. Bestetik, anarkistak Diktadura garaian desagertu egin zirela suposa dezakegu, baina 1935an berriz sortu zen euren antolakundea Beasainen.

42. Eskuineko ideologiakoa, karlistengandik gertukoa (baina ez zuzenean lotutakoa). Jeltzaleen nekazal-sindikatu, ENB, 1933an sortu zen Beasainen.

43. 1904an sortu zen *Casino Recreativo*ren jarraipena, 1920an futbol taldea osatu zuten.

44. Elkarte hau 1920an sortu zen, baina langileak baino, erdi- eta goi-klaseetako jendea batzen zuen. UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkarte" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*.

(*Beasaingo paperak* bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

45. BELAUSTEGI BEDIAUNAETA, Unai: op. cit., 40-41. or. Jose Maria Uranga historiagile karlistaren arabera, Arrasateko liberalen artean zatiketa bat izan zen Errepublika garaian, alde batean "liberal-antiklerikalak eta viterista zaharrak" zeuden, Zentro Errepublikanoan bilduta, eta bestetik Viteri Kasinoko "liberal-kontserbakorrak". Urangaren arabera, azken hauek, Errepublikaren hasieran, ezkerrekoei "babes teorikoa" eman zieten, baina gerora "kontserbakorrago" egin ziren. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit.

46. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 81-82. or.

47. Ibid., 139. or. Bestalde, Jose Maria Uranga, sozialistak oso gutxi ziren, "60 bat (...) oso bortizak eta iraultzaileak", baina "UGTko kide ziren langile-masa handi baten aldekotasuna zuten". URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit..

48. GARAI BENGOA, Juan Ramon; GUTERREZ AROSA; Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Oñati, 2014, 170. or.

ezkerreko koalizioak atera zituen, karlistek lau eta nazionalistek hiru⁴⁹. Beasainen –hauteskundeak maiatzean errepikatu behar izan ziren apirilakoak balio gabetuta geratu zirelako- ezkerreko hautagaitzak hamaika zinegotzi atera zituen eta eskuinekoak bi⁵⁰. Ekainean, ezkerreko indarrek ere emaitza onak atera zituzten bi herriotan: Beasainen ezkerreko indarrek irabazi zuten, eta Arrasaten %39,80 lortu zuten, Gipuzkoako batz bestekoan⁵¹. Honek erakusten du ezkerrek 1931 urte heldu orduko presentzia handia zuela bi herretan.

Bi herriek antzeko arazoak, izan zituzten, adibidez, langabeziarena: 1932an, Arrasaten, 7.300 biztanletatik 1.360 langabezia zeuden, eta Beasainen, 5.200 biztanletatik, 922 –kontuan hartuz biztanleak, eta ez populazio aktiboa aipatu dugula⁵². Alta, guztiz ezberdina izan zen bi herrien langile-mugimendua jarrera. Beasainen 1931-1936 artean greba bakarra egin zen: 1934ko urrikoa. Arrasaten, ordea hainbat greba gertatu ziren: Parrak eta Aramendiak 1933an greba oso istilutsu bat izan zela aipatzen dute, kaleratzeak zirela eta⁵³. Juan Ramon Garairen arabera, urtarrilaren 2an, iraultzaren bezperetan, beste lanuzte bat izan zen Arrasaten, eta Oktubre Taldearen lanean, 1936ko otsailean beste greba bat egin zuten *Unión Cerrajerako* langileek⁵⁴.

Ezberdintasunak handi agertzen zaizkigu 1934ko Iraultza hobeto aztertzen badugu: Beasainen sabotai txiki batzuk egin ziren, baina horrez gain, greba orokorrak ez zuen ez eraikin publikorik hartu, ez tirorik jo, ez iraultzarik aldarrikatu; hots, ohiko greba baten portaera izan zuten. Arrasaten Iraultza Sozialista aldarrikatzeaz gain, eta egun oso batez herriaren kontrola lortzeaz gain, lau hildako izan ziren, hiru iraultzaileen aldetik (*Unión Cerrajerako* bi nagusi, politikari ezagunak ere bazirenak, eta greba egin nahi ez zuen langile bat) eta azkena poliziak hil zuen iraultzaile bat⁵⁵; iraultzaileek hildako eskuindarrenak,

49. Ibid., 109. or.

50. Beasaingo Udal Artxiboa. 061 dokumentua, 09 karpeta; Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 79. dokumentua eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta. Hala ere, esan beharra dago, Beasainen ezkerrek irabazi bazuen ere, eta egia bazen herrian gehiengo zuela; 11:2 proportzio hori puztua dago. Izan ere, hauteskundearen errepikapena maiatzean egitean, jada Errepublika aldarrikatu zenean; eskuineko hautagai gutxi aurkeztu ziren, zitekeenez, sektore honengan nagusitu zen etsipena zela eta.

51. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián...* op. cit., I eranskina.

52. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa...*, op. cit., 71. or.

53. PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 63. or.

54. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 132. or. Pedro Barrusok, bere lanean ez du greba hori aipatzen.

55. *Unión Cerrajerako* zuzendarien artean Marcelino Oreja zuzendari karlista ezaguna eta Dagoberto Resusta, Lerrouxen alderdiaren partetik Gipuzkoako Aldundiko gestorako kidea zena eta alkate izandakoa, ziren hildakoak. Hirugarren eskuindarra Eugenio Edurra langile karlista zen, Bergarara lanera zihoala tirokatua. Hildako iraultzailea Secundino Vitoria gauzaina zen, UGTkoa. Gertakizun haei buruzko xehetasun handiagoetarako: GARAI BENGUA, Juan Ramon: op. cit., 34-54. or.; OKTUBRE TALDEA: op. cit., 162-185. or.; PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: op. cit., 64-66. or.; eta VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Maalako Errebala*, op. cit., 46-54. or. Azken honek Pio Barojaren kontakizuna erreproduzitzen du.

batez ere Marcelino Orejaren kasuak, hunkidura handia sortu zuen Arrasateko eta Euskal Herriko eskuinaren Esan dezakegunez, Arrasaten langile mugimendua askoz ere erradikalizatuagoa zen, eta polarizazio politikoa, handiagoa. Hau oso garrantzitsua izan zen 1936an bi herrietan izango ziren tokiko dinamika ezberdinak ulertzeko faktore bereizgarri gisa.

Jarraitu aurretik, EAJk eta ELAK jokaturako papera azaltzeko tarte bat hartuko dugu. Erakunde hauek iraultza sozialaren aurkako ziren, beraz ez zuten bat egiten grebaren helburuekin. Hala ere, kontuan hartu behar da ELAren masa langileari ere eragin zizkiola 1934ko Gobernu eskuindarraren neurriak; eta bestetik, 1934ko abuztu-irailean izandako mugimendu autonomistaren kontrako errepresioak, abertzaleak Gobernuarekiko antagonia erabatekoan ezarri zituela. ELAren Gipuzkoako Federazioak, "mugimendutik aparte geratzea (...) baina talkak ekiditeko greba ez saihestea" gomendatu zuen dokumentu batean⁵⁶. Beraz, greba handia izan zen toki batzuetan, ELAko kideek parte hartu zuten, eta eskuineko prentsak hori nabarmendu zuen: adibidez, Gipuzkoako ekialdean eta Hegoaldean: Tolosan, Bergaran, Zumarragan eta Ordizian. Beasainen, ELAko Joxe Ibarbia Antonio Menaza sozialistarekin joan zen CAFeko zuzendariarengana negoziatzera, eta 1934ko urriaren 5eko gauean Bernabe Aierdik grebarekiko babesa eman zuen, *jada greba jazotako gertakizuna zenean*⁵⁷. Baina kontutan izan behar dugu Beasainen grebak izan zuen izaera "greba soil" batena izan zela (langileak jabearengana negoziatzera joatea adibide). Beraz, langileak "greba arruntaren giroan" atera ziren tokian, parte hartu egin zuten ELAko kideek, baina ez iraultza bortitza izan zen tokietan, eta ezta ere Arrasaten. Ikusi dugun bezala, nahiz eta jeltzaleek iraultzan (hots, greba iraultzailea zen tokietan) parterik ez hartu, 1936an bestela ikusi zituzten eskuindarrek.

2. "IZU URDINA" GIPUZKOAN

Izua, hau da, gudako etsai edo etsai posible gisa populazio zibila hartzea, Guda Zibilean erabilitako arma bat izan zen. Egile gehienek arabera, izua bi aldeetan erabili izan zen: "izu gorria" eta "izu urdina" izan genituen⁵⁸. Hala ere, honek ez gaitu, zenbaitek egin bezala, bi aldeek edo bi izuen "parekatzera"

56. ELAren posizioaz datu gehiago: ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2011, 222-229. or.; eta GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus; eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 43-46. or.

57. KORTAZAR-BILLELBEITIA, Jon: op. cit., 189-190. or.; eta GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Jesus: op. cit. 186-189. or.

58. Bi izuak konparatzen dituen lan bete bat dugu, adibidez: ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950*. Crítica. Barcelona, 2010. Esan bezala, lan honek bi bortizkeriak konparatzen ditu, baina ez parekatzen.

eraman behar; ez motibazioa, ez biktimen konposizioa, ez agintarien posizioa eta batez ere, ezta ere biktimen kopurua ez baitzen berdina izan alde batean zein bestean. Pierre Vilarrek, Guda Zibilari buruzko liburu batean, bi izuek antzeko logika kronologikoa erabili zutela nabarmentzen du: "lehenik inprobisaziozkoa, gerora "garbiketa" antolatua, geroago (1937ko udaberriaren ostean) legezko errepresio ez hain odoltsua"; nahiz eta frankisten kasuan kopuru handiagoa hil zutela esan⁵⁹. Beste klasiko baten, Gabriel Jacksonen arabera, bi aldeen arteko ezberdintasuna nahiko argia izan zen: Fronte Popularraren aldean gertatu zen errepresioa, batez ere 1936an Estatu errepublikanoa desagitearen eta iraultza sozialaren ondorio izan zen; gainera, iraultza sozial horrek ez zuenez lortu botere alternatibo "osorik" erakitzea, errepresioa tokiko komiteen eskuetan egon zen, eta beraz, tokiko dinamiken arabera izan zen, toki ezberdinen artean aldaera- edo ezberdintasun-maila handia ematen zelarik⁶⁰. Praktikoki, "izu gorria", Estatu errepublikanoaren ekintza baino, honen desagerpenaren fruitua izan zen; honen berragerpenarekin desagertuz joan zelarik. Mirta Nuñez Diaz-Balarten arabera, "errepublikanoen kontrolpeko lurraldean, Estatuak ordena publikoa bere egiteko gogor borrokatu behar izan zuen"⁶¹; eta ezin horren ondorio zatekeen "izu gorria". Jose Luis Ledesmanen arabera, errepresio gorriak bi motibazio zituen: horietako lehena mendekua, hots, bajen edota errepresio urdinaren berriek eragindakoa⁶². Hau izan zitekeen adibidez, Donostian, uztailaren bukaeran Ondarretako kartzelaren asaltoa azalduko zukeena, uztailaren 27an Beasainen kolpistek egindako errepresioari erantzuna izan zitekeena. Bestetik iraultza sozialaren prozesua azkartzea izan zen helburua, hala errepresioa goiko klaseen aurkakoa izango zatekeen. Hala ere, kontuan izan behar dugu iraultza sozialaren azkartzea ez zela izan indar errepublikano guztien proiektua⁶³. Praktikan, errepresio gorria 1936 eta 1937ko hasieran zonalde errepublikanoan izandako "botere aniztasunaren" ondorio bat izan zen, Jose Luis Ledesmak dionaren arabera, "ez zetorren goitik" eta "ez zuen helburu argirik"; beraz, "hori zen errepresio urdinarekiko ezberdintasun handiena"⁶⁴.

"Izu urdinak" bestetik, bestelako izaera bat izan zuen. Hasiera batean,

59. VILAR, Pierre: *La guerra civil española*. Crítica. Bartzelona, 1986, 156-157. or.

60. JACKSON, Gabriel: *La República española y la guerra civil (1931-1939)*. Biblioteca de Historia-Orbis. Bartzelona, 1985, 255-262. or.

61. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: "El por qué y el para qué de la represión" in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta (koord.); ALVARO DUEÑAS, Manuel; ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo (21-52)*. or.). Ediciones Flor de Viento. Bartzelona, 2009, 22. or.

62. LEDESMA VERA, Jose Luis: "Una retaguardia al rojo. Las violencias en la zona republicana" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950 (147-247)*. or.). Crítica. Bartzelona, 2010, 168-175. or.

63. *Ibid.*, 175-180. or.

64. *Ibid.*, 201. or.

errepresio urdina (para-) Estatuaren aldetik bultzatu zen, honen helburuetako bat huraxe zelarik, Molaren bandoek esan bezala, eta 1936an zutabe militar ezberdinek eta buru ezberdinek errepresioa ahalik eta gogorren aplikatu zuten, hain zuzen ere, Madril ahalik eta lasterren hartzeko helburuarekin. Hasiera batean, errepresio hori batere arautu gabekoa izan ohi zen, "bando militarra" zen aplikatu ohi zen justifikante bakarra⁶⁵. Bestalde, Nuñez Diaz-Balarten arabera, errepresio mota hori "prebentiboa" ere bazen, ez soilik zigortzailea⁶⁶; hau da, ez ziren soilik "delituak egindakoak" ("delitu" horiek politikoak edo oso arinak baziren ere) hiltzen, baizik eta beldurtzea zen helburu nagusia.

Bestetik, bi zonaldeetan "errepresio arautuak" eta "arauz kanpoko errepresioa"⁶⁷ euren artean izan zuten harremana eta bi errepresio ezberdinen ateko korrelazioa ere ezberdin agertzen zaigu. Esan dugu Estatu errepublikanoa berregin bezain pronto, hau da, Estatuaren aparailua berreraiki bezain laster, izu masiboa desagertuz joan zela. "Izu urdinaren" kasuan, "izu masiboa" eta "errepresio arautua" ez ziren bateraezin izan, "errepresio gorriarekin" izan ziren moduan. Gil Vicoren arabera, 1937tik aurrera, jada, Francok bere zonaldeko (para-)Estatua kontrolpean zuelarik, hasi zen errepresio urdinaren barruan "errepresio arautua" orokortzen, hala ere, kronologikoki (eta metodologikoki) bai errepresio arautua eta arautu gabekoa bat etortzen ziren askotan; bat agertzearekin bestea ez zen desagertu⁶⁸. Hala ere, ikusiko dugun moduan, Gipuzkoan prozesu hori aurrerago eman zen, 1936ko irailean. Mikel Aizpuruk zuzendutako taldea ere bat dator honetan, bai datan, eta gainera, "errepresio arautuaren" agerpena, (para-)Estatu frankistan Francoren botere-kontzentrazioarekin lotzen du⁶⁹. Kasu honetan, bai errepresio gorriaren kasuan, zein errepresio urdinaren kasuan patroi bat errepikatzen da: "errepresio arautua" eta botere-kontzentrazioaren elkartzea. Baina bi ezberdintasun badaude: bata, "errepresio arautua" agertzeak, kasu batean (urdinean) bortizkeria maila jaitsi ez zuela. Eta bestetik, "errepresio arautua" agertzearekin batera, kasu batean, gorrian, "kontrola" ere agertu zen. Errepresio urdinaren kasuan, kontrola lehen momentutik izan zen.

65. GIL VICO, Pablo: "Derecho y ficción: la represión judicial militar" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950* (251-368. or.). Critica.artzelona, 2010, 267-273. or.

66. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: "El por qué y el para qué de la represión"... , op., cit., 30-31. or.

67. "Errepresio arautua" eta "arauz kanpoko errepresioa" kontzeptuak erabiliko ditut "errepresio legala" eta "errepresio ilegal" erabili ordez. Izan ere, azken bi kontzeptu horiek izu urdinari aplikatuz gero, Estatu-kolpearen ondoren etorritako aparailuari legezko zilegitasuna aintzatestea litzatekeelako.

68. GIL VICO, Pablo: op. cit., 273-281. or.

69. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: *El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Irun/Hernani, 2007, 170-174. or.

Beste modu batean, "arauz kanpoko errepresioa" eta "kontrolrik gabeko errepresioa" kontzeptuak erkatzearekin kontuz ibili behar dugu, izan ere, ikusi dugun eta Gipuzkoako kasuan ikusiko dugun bezala, izu urdinaren kasuan arautu gabeko errepresioa (para-)Estatu frankistak onartutako politika izan zen⁷⁰, eta honen organuak guztiz jakitun ziren horretaz, "egiten utzi" zutelarik⁷¹. Eta hau Estatu osorako zen balekoa: "araurik gabeko errepresio masiboa" ez zen "bortizkeria itsuaren" sinonimo. Nuñez Diaz-Balarten arabera "bortizkeria frankista ez zen zentralizatuta egon, aldekoei egiten uztea izan zen, euren ekintzak araudiak babestuta egon ala ez"⁷². Francisco Espinosa Maestrek ere azaltzen duenez, 1936 eta 1937ko otsailaren artekoa izan zen batez ere "araurik gabeko errepresioa", baina "komeni izan zitzaionean, berriz erabili zuen metodo errepresibo hau"⁷³. Honek azaltzen du, adibidez, guda bukatuta errepresioak jarraitu izana⁷⁴.

Oro har, Espinosa Maestren arabera, 50.000 bat pertsona hil zituen "errepresio gorriak", eta 130.000 bat "errepresio urdinak"; zeinak gudaren ostean hiltzen jarraitu izan zuen. Julio Prada Rodriguezek, errepresio gorriaren zifra horiek berresten ditu, eta errepresio urdinaren zifrak 140.000ra igotzen ditu⁷⁵. Manuel Alvaro Dueñasen arabera, 150.000 inguru hilko zituzkeen errepresio urdinak⁷⁶. Nuñez Diaz-Balarten arabera, errepresio hain masiboak ere bazuen bere alde instrumentala: populazioaren masa handia beldurtzea zen helburuetako bat, eta beste bat erregimen totalitario bat sortzea:

70. Santiago Vega Sombriak adierazten duen moduan "'errepresio ilegala" ezin da inolaz ere, "ez kontrolatu" moduan hartu, aginte militarrek altxatuen kontrolpeko lurralde osoa kontrolatzen baitzuen". VEGA SOMBRIA, Santiago: "Manifestaciones de la represión franquista" in *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea*. 7 zkia. 2007.

71. Ledesma Veraren arabera, errepresio gorriaren barruan zenbait tokitan "arauz kanpoko errepresioa" ere ez zen erabat kontrolrik kanpoko izan, askotan erakunde baten siglekin edota erakunde horren tokiko atala ordezkatzeko baitzuten. Hala ere, Ledesma berak iradokitzen du "boterearen dispersioaren" fruitu izan zela egoera hau, ez zela izuaren plangintzarik izan (200. or.), eta errepublikanoen "botere zentrala" egoera kontrolatzen saiatu zela. Ikus: LEDESMA VERA, Jose Luis: op. cit., 192-214. or.

72. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: "El por qué y el para qué de la represión"..., op. cit., 38. or.

73. ESPINOSA MAESTRE, Francisco: "La represión franquista: un combate por la historia y por la memoria" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950* (15-78. or.). Crítica. Bartzelona, 2010, 39. or.

74. Honen inguruan erreferentziatzeko lan bi aipatuko ditut adibide moduan: NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *Los años del terror. La estrategia de dominio y represión del general Franco*. La esfera de los libros. Madril, 2004; eta MORENO GOMEZ, Francisco: *La victoria sangrienta 1939-1945. Un estudio de la gran represión franquista para el Memorial Democrático de España*. Editorial Alpuerto. Mostoles (Madril), 2014.

75. PRADA RODRIGUEZ, Julio: *La España masacrada. La represión franquista de la guerra y la posguerra*. Alianza. Madril, 2010, 436-438. or.

76. ALVARO DUEÑAS, Manuel: "'Por derecho de fundación": la legitimación de la represión franquista" in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta (koord.); ALVARO DUEÑAS, Manuel; ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (53-132. or.). Ediciones Flor de Viento. Bartzelona, 2009, 126-127. or.

“beharrezkoa zitaion”⁷⁷. Errepresio gorria batez ere 1936ko uda eta udazkenean kontzentratu zen; errepresio honek hildakoen erdia uztaila eta iraila artean izan ziren⁷⁸. Honek erakusten du Estatu berregin izan zenean, errepresio gorriak leuntzera egin zuela; hori ez zen gertatu errepresio urdinaren kasuan, zeinak guda ostean jarraitu zuen.

Gipuzkoara etorri gero, hemen izan zen izuak ere, aspektu ezberdinak izan zituen. Kontuan izan behar da, Gipuzkoa Nafarroaren ondoan zegoen herrialdea izaki, “nafar logikak” Gipuzkoara ere heda zitezkeela. Baina beste alde batetik, Gipuzkoa barruan ere nolabaiteko dinamika propioa gertatu zen, guda zibilak hala eman zuelarik. Kontuan izan behar dugu Gipuzkoan guda zibilak bi ardatz izan zituela: alde batetik uztailaren 20an Donostian zeuden militarren matxinada (porrot egin zuena, baina Errepublikaren aldekoen aldean boteregune berriak sortzea ahalbideratu izan zuena), eta Nafarroan jada gailendu ziren militarren aurrera egitea, hauek Gipuzkoan hiru tokitatik sartu zirelarik: uztailaren 22an Oiartzun-Aritxulegitik, uztailaren 23an Berastegitik Tolosarantz, eta uztailaren 24an Goierritik (Lizarrusti, Etzegarate eta Otsaurtetik) Beasain-Ordizia ardatzerantz. Oiartzundik sartzen den ardatzak Errenterian errepublikanoekin topo egiten du, eta Donostiako matxinoekin bat egin ezinik geratzen da (uztailaren 27an Donostiako matxinoek amore ematen dute). Matxinada militarren porrotak, Gipuzkoan botere berri baten sorrera ekarriko du, Pedro Barrusok “Botere iraultzailea” deitzen diona. Gure ustez, ikuskera hau nahiko handizkatua da, izan ere, matxinadaren ondotik ezarritako “ezkerreko” botereak, alderdi iraultzaileak zein moderatuak (EAJ bera) biltzen baitzituen, eta ez zuen iraultza sozialaren programarik izan. Hala ere, egia da ezker erradikaleko indarrak gainordezkatuak zeudela organo berri horietan (Gipuzkoako Defentsa Batzordean zein tokiz tokiko defentsa-batzorde ezberdinetan, baita Beasainen zein Arrasaten), guda aurreko II Errepublikako instituzio “arruntek” pisua galdu izan zutelarik eta Herri Frontearen indarrek osatutako erakunde berriak egoeraren arduradun egin zirelarik. Alta, esan bezala, ez programa iraultzaile batekin, ezta ere indar leialen arteko pluraltasuna ezabatuz⁷⁹. Azkenik, azaldu behar dugu Gipuzkoako Defentsa Batzordea eratzeak tokiko defentsa batzordeak eratzea bultzatu bazuen

77. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: “El por qué y el para qué de la represión”..., op. cit., 25. eta 38. or.

78. LEDESMA VERA, Jose Luis: op. cit., 201-202.

79. Pedro Barrusok honako lan honetan definitzen du Gipuzkoako botere-aldaketa prozesua, edo bere hitzetan “Botere iraultzailearen eraketa”: BARRUSO BARES, Pedro: *La Guerra Civil en Guipúzcoa (Julio-Septiembre de 1936)*. Hiria. Donostia, 2006, 109-125. or. Hala ere, Barruso berak (115. or.) alpatzen du Gipuzkoako Defentsa Batzordeak “indarren kontzentrazio-izpiritua” mantendu zuela, nahiz eta geroago (119-121. or.) ere badin tokiko batzorde askotan EAJren presentzia tokiko dinamiken araberakoa (beraz ez homogenea zela). Bestetik, Barruso berak dio Gipuzkoako Defentsa-Batzordearen eragina ez zela Gipuzkoa osora hedatzen: Debako Haranean (Arrasate barne) Eibarko eskualde-batzordea zuten erreferentzia gisa, honen ideologia antzekoa, hots, Herri Frontearena, bazen ere. Alta, abuztuan Azpeitian indar abertzaleek, bertan gudari abertzaleak bilduta, Azpeitiko Komandantzia eratu zuten, Urolaldean nagusi zena eta irizpide

ere, tokiko batzorde batzuk bere kabuz sortu zirela: adibidez Beasainen ere Defentsa Batzorde bat eratu zen, Udalaren gaintik herriaren defentsa-ardura izan zuena, eta esan bezala Goierriko herria uztailearen 27an hartu zuten militar kolpistek, hain zuzen Donostian Gipuzkoako Batzordea eratu zenean. Beraz, ezin daiteke esan Beasainen eman zen botere-aldaketa, Donostian emandako "prozesu iraultzailearen" emaitza zenik.

Beraz, Donostiako matxinada militarrek porrot eginda, Nafarroatik zetozen tropek, nagusitasun numerikoa aprobetxatuz hartu zuten Gipuzkoa. Hegoaldeko bi ardatzek, uztailearen 27an Beasain eta abuztuaren 1ean Ordizia hartu ostean, abuztuaren 11n Tolosa hartu zuten. Iparralderako martxa jarraituz, abuztuaren bukaeran Andoain hartzen dute, baina momentu batez frontea hor geratzen da. Momentu horretan, kolpistek Bidasoako pasabidea hartzea erabakitzen dute, Irun eraso eta irailaren 4an hartuz. Modu honetan, errepublikanoen eta Frantziaren arteko kontaktua (eta horniketa bide bat) ixten dute, hain justu errepublikanoek euren indarrak gehienak han konprometitu zutelarik. Donostialde osoa inguratuta dago, eta irailaren 11n eskualdea eta 13an hiria bera hartzen dute eskuindarrek. Ordurako, Gipuzkoako ebakuazioa prestatu zuten errepublikanoek (irailaren 7an hasi zuten, behin-betiko akordioa 12an hartu zutelarik), Gipuzkoako mendebaldean frontea finkatzeko saiakera eginez, Intxorta mendi inguruan lortuz⁸⁰. 1937ko apirilko erasoan, Gipuzkoako azken herriak, Eibar eta Elgeta, kolpisten esku geratzen dira.

Gipuzkoan, zilegizko Gobernuari leial zitzaizkion indarrak agintean zeuden bi hilabeteetan, "errepresio gorriaren" kasu batzuk gertatu izan ziren. Pedro Barrusok hirutan motatan sailkatzen du errepresio gorria: "justizia espontaneo", "justizia iraultzailea" eta "justizia herrikoa"; lehena, arautu gabeko errepresioaren barruan sartu zatekeelarik, eta azken biak, arauen barneko errepresioaren eredu izan zirelarik. Pedro Barrusoren arabera, lehen motatako bortizkeria, matxinada gertatu eta egun gutxira hasi zen, batez ere, Donostiako matxinada garaitu ostean. Barrusok dionez, batere araurik gabeko bortizkeria izan zen, tokiko ezkerreko elementuek edo tokiko defentsa batzordeek gidatutakoa, "Gipuzkoa osoko mailako" jarraibiderik gabe. Egile honen arabera Gipuzkoan, "beste tokietan ez bezala (...) preso batzuk hil baziren ere, lehen egun hauetan ez zen inolako odol isurketa handirik izan", izan ere, lehen hilketak Donostiako matxinada garaitu ostean izan ziren eta, hain justu kolpistek Beasaingo hilketa egin ostean. Normalean, lehen egun hauetan atxilotutakoak tokiko kartzeletan sartzen zituzten preso, bai Beasainen eta bai Arrasaten hala izan zen. Barrusoren arabera, Herri Frontearen agintariak saiatu izan ziren errepresio mota hau biguntzen edo moteltzen (Beasainen halakoa

propioa zuena, Donostian zegoen Gipuzkoako Defentsa-batzordearen menara egon gabe. Beraz, Gipuzkoako zonalde leialean, bi hilabete horietan, "botere aniztasun" geografiko bat izan zen.

80. Operazio hauei buruz xehetasun gehiago irakurtzeko: BARRUSO BARES, Pedro: *La Guerra Civil en Guipúzcoa...*, op. cit., 197-250. or.

izan zen kasua, atxilotuei tratu ona eman baitzitzaien, eta militarrek herrian sartu baino lehenago atera zituzten)⁸¹. Barrusoren arabera, Gipuzkoan izan ziren presoek hilketak justizia mota honen barruan sartzen ziren⁸².

“Errepresio gorriaren” beste bi justizia motak, araututakoak izan ziren, soilik organismo ezberdinen azpikoak: “justizia iraultzailea” zuzenean Defentsa-Batzordearen pe (eta batez ere Justizia komisario Jesus Larrañagaren eraginez) egindako justizia zen, eta “justizia herrikoa”, abuztuaren 25ean, Espainiar Estatuko beste zonaldeetan gertatu bezala, sortu zen “Donostiako Epaitegi Herrikoien” pe (nahiz eta hau Defentsa-Batzordearen menpeko erakunde bat izan, jada azken honen kontrol zuzena baino zeharkakoa ezarri zuen). Hauek, batez ere, Donostian, Estatu-kolpearen buru politiko edo militar nagusiak izan ziren pertsonak epaitu zituzten. Guztira, Pedro Barrusoren arabera, “errepresio gorriak” 400 bat pertsona hil zituen Gipuzkoan, horietatik gehienak, 340 bat, “arautu gabeko errepresioa” zela eta⁸³. Kronologiari so egiten badiogu, “arautu gabeko errepresioaren” hilketa gehienak kontzentratzen zituzten gertakariak (Ondarretako, Tolosako eta Hondarribiko presoek hilketak) batez ere kontrol errepublikanoaren epealdiaren bi ertzetan eman zen: matxinada osteko lehen egunetan (Donostiako matxinada garaitu ostean), eta erretiratze garaietan (irailean); hau da, zilegizko Gobernuaren aldeko indarrak ahulden zuden uneetan.

“Izu urdinak” bestelako izaera bat izan zuen, baita ere Gipuzkoan. Esan dugun moduan, Estatu mailan, para-Estatu frankistak berak halako errepresioa bultzatu egin zuen; horregatik esan dugu lehen, izu urdinaren kasuan “araz kanpoko errepresioa” eta “Kontrolik gabeko errepresioa” ez direla bateragarriak. Errepresioa mota hau, ikusiko dugun moduan, militarrek Gipuzkoan sartu bezain laster hasi zuten, Beasainen lehen hilketa masiboa burutu zutelarik uztailearen 27an. Hala ere, egile gehienek ustez, “errepresio urdinaren” punturik gorena militarrek Donostia hartu osteko hilabeteetan izan zen, 1936ko bukaerako hilabeteetan⁸⁴. Zenbakien inguruan ere, nolabaiteko eztabaida handi bat dago. Pedro Barrusok 485 eta 500 artean hildako “ziur” izan zirela dio; hala ere, hau oso zenbaki kontserbakorra da, egileak berak

81. BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Hiria. Donostia, 2005, 51-58. or.

82. Ibid., 59-71. or. Hilketak, Ondarretako kartzelaren kontrako asaltua (uztailearen 30ean), Tolosako presoak Donostiara eraman eta bertan hiltzea (abuztuaren 1ean), eta Hondarribiko Guadalupeko gotorlekuaren kontrako asaltua (irailaren 2an, militarrek Hondarribia inguratua zutenean hasi zen) izan ziren. Ikusten dugun moduan, hilketa hauek Beasainen uztailearen 27an “izu urdinaren” lehen hilketa masiboa gertatu ostekoak dira.

83. Ibid., 54. eta 525. or.

84. Adibidez; AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op.cit., 149-150. or.; BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 122-123. or.; eta EGANA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999.

aipatzen duen moduan. Barrusoren arabera, "oso zaila izango da inoiz militarrek Donostia hartu ostean hil zituztenen kopurua jakitea", eta berak baio "Erregistro Zibilean agertzen diren kopuruak ez direla fidagarriak". Alta, zifra horretarako ez ditu Hernaniko ez Oiartzungo fosa amankomunak kontutan hartzen; hor dauden hildako kopurua ziurtzat ematen ez duelako, baina zabalik uzten du kourua handitu ahal izana⁸⁵. Bestetik, Iñaki Egañak mila hildakotara igotzen du zifra. Mikel Aizpuruk zuzendutako taldeak, oro har, zenbaki hori ontzat ematen du, baina honen sailkapenarekiko zorrotasun falta ere kontutan hartzen du, ez baititu "errepresio arautuaren" pean eta "arauz kanpoko errepresioaren" pean hildakoak bereizten⁸⁶.

Beraz, "errepresio urdinak" badu beste aspektu bat: hain zuzen ere kronologikoki Gipuzkoa hartzen ari zirela hasi zela, eta horrez gain, behin instituzio berriak Gipuzkoan, kontrolpean sendo ezarrita jarraitu egin zuela. Donostia hartu artean, errepresio gehiena "arauz kanpoko" izan zen, noski. Baina bestetik, militarrek Donostia hartu eta berehala has ziren epaitegi militarrek eta guda kontseiluak antolatzen⁸⁷. Noski, honek ez du esan nahi "arauz kanpoko errepresioa" eten egin zenik, adibidez, falangisten zein karlisten aldetik errepresioak jarraitu egin zuen⁸⁸; eta noski, Gipuzkoan arauz kanpoko ekexuzioak jarraitu egin zuten: Hernaniko eta Oiartzungo fosa amankomunak dira hilketa hauen zentrorik handienak, baina egon ziren beste batzuk ere bai, adibidez Orio eta Zarautzen arteko errepidean, edo Ullia mendian⁸⁹. Mikel Aizpururen arabera, halako erailketen eskenatokiak Donostiatik gertu izan ziren, eta "pixka bat ezkutuan". Talde honek, Julio Pradak Galiziako Ourense probintzian izandako errepresio-eskemarekin kontrastatzen du, hain hilketak errepideetatik hurbil izaten baitziren, "jendea beldurtzeko"⁹⁰. Aizpuru eta bere kideen erantzuna da, errepresioak kasu askotan, ez zuela logika bakar, zurrun eta koherenterik.

Baina bestetik, kontuz izan behar dugu behin Donostia hartuta, "arauz kanpoko errepresioa" soilik falangistek edo karlistek egiten zutena dioen ikuspegi hedatuarekin. Aizpuruk zuzendutako taldearen arabera, zenbait lekukok (Ignacio Azpiazu azpeitiar apaizak adibidez) halako ikuspegi zabaldutuz, batez ere euren atxilotzaileak erreketek edo falangistak baziren. Pedro

85. BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 120-121. or.

86. EGAÑA, Iñaki: op. cit.; eta AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 148. or.

87. BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 116-117. or.

88. Falangistek, Bulebarrean, EAJrena izandako lokaletan, kartzela alderdikoi bat zuten, eta karlistek Kursaal: *Ibid.*, 126. eta 180. or.

89. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 169-170. or.

90. PRADA RODRIGUEZ, Julio: *Ourense 1936-1939. Alzamiento, guerra y represión*. Edicions do Castro. Ourense, 2004, 201. or.

Barrusok bere lanean ere Donostia hartu osteko hildakoak "indar politiko hauen, falangisten eta tradizionalisten iharduerarekin" lotzen ditu⁹¹. Hala ere, ikuskera hori ez da guztiz zuzena. Izan, ere Mikel Aizpuruk zuzendutako taldeak, Hernaniko eraiketen inguruan atera zuen liburuan azaltzen duen moduan, han eraildako gehienak, batez ere Ondarretako kartzela "araututik" (militarrak eta euren peko epaitegiak ziren kartzela horren arduradun) zetozen; ez hainbeste falangisten edo karlisten kartzela edo bat-bateko alderdikoetatik. Hori dela eta, ikerlari hauen arabera, bi errepresio motak, batera izateaz gain, koordinatuta zeuden⁹². Halakoek erakusten duten, errepresio urdinaren kasuan "araz kanpoko errepresioa" eta "kontrolrik gabeko errepresioa" ez zirela gauza bera.

Gure lan honetan ikertzen ditugun bi kasuak izu urdinak eragindakoak izan ziren, eta biak izan ziren, araz kanpoko errepresioaren isla, eta baita biak, bi herri handitan⁹³. Izu urdinaren egitura planifikatuan tokiko dinamikek zein kronologi dinamikek kasu bakoitzean, errepresioaren tipologian zerikusia izan zuten, beraz, bi kasuak aztertzerakoan, herri bakoitzaren berezitasunek nolabaiteko zeresana izan zutela kontuan izan behar dugu, hain zuzen ere, bata, Beasaingoa, kolpistak Gipuzkoan sartu eta berehala egindako hilketa izan zelako⁹⁴; eta bestea, Arrasatekoa, ordea, Gipuzkoa ia osoa jada hartuta zegoenean.

Beasain izan zen Gipuzkoan kolpistek hartu zuten garrantzizko lehen herria, 1936ko uztailaren 27an. Kontuan izanik Gipuzkoan altxatuak uztailaren 24an sartu zirela, eta Nafarroan sarraskia gertatzen ari zela, Beasaingoa "nafar logikaren" hedapenak nolabaiteko pisua izan zezakeela uste dugu. Gure datuen arabera, Beasainen, borrokan hildakoez aparte, frankistek eraildako 35 pertsona izen-abizenekin aurkitu ditugu, beste hiruren kasuetan zalantza aurkitzen badugu ere⁹⁵. Gure kontaketa arabera, 16 pertsona gehienez -zalantzazkoak barne- sar ditzazkegu "mendeku militarren" edo "logika militarren" barruan; hau da, borrokan ari ziren pertsonak atxilotu eta

91. BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 127.

92. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 153-154. or.

93. Pedro Barrusoren arabera, Gipuzkoako herri handietan (Jose Antonio Rodriguez Ranzen terminologiaren arabera "Gipuzkoa hiritarrean") izan ziren hilketa gehienak zein kartzelatu gehienak, Donostian bertan baino gehiago. BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 208-210 or.

94. Pedro Barrusok ere badio Beasaingoa "Gipuzkoan inflexio puntu bat" izan zela. *Ibid.*, 114. or.

95. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon, op. cit., 292., 300. eta 345-346. or. Miguel Angel Gonzalez zerrendan 35 pertsona azaltzen dira, baina zerrenda osatzeko izenen batean ezberdintasunak ditugu. Jose Miguel Barandiaranek 37n ezartzen du kopurua. Ez da hau izenen eta zerrenden inguruko xehetasunak garbitzeko artikulua. (GONZALEZ LOPEZ, Miguel Angel: op. cit., 276. or.; eta BARANDIARAN FUNDAZIOA: *Jose Miguel Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Barandiaran Fundazioa. Ataun, 2009, 517. or.)

errematatutakoak, edota paranoia militarrek eragindako erailketen zerrendaren barruan: zazpi goardia zibil, hiru militar, hiru herritar armatu, mikelete bat, preso bati laguntzen saiatu zen erreketek bat eta "zeinuak egiteaz" akusatua izan zen zibil bat. Beste denak zibilak izan ziren, eta ikusiko dugun moduan, politikoki gehiegi nabarmendu gabekoak.

Arrasaten, ordea, irailaren 26an sartu ziren kolpistak, Donostia hartu ostean, mendebalderanzko aurrerakada egiten ari zirela. Debagoienan, 1936ko urri eta azaro artean, 60 bat pertsona hil zituzten frankistek, eta beste zazpi 1937ko apirilean, Elgeta hartu ostean⁹⁶; horietako 43 arrasatearrak edota Arrasaten hilak izan zirelarik. Arrasaten, denbora tarte honetan hildakoak zibilak izan ziren denak, izan ere, herri barruan ez baitzen borrokarik egon, bai ordea ondoko mendietan⁹⁷. Kasu honetan, hildako gehienak, halako hilketak gertatzen ari ziren tokietara, Hernanira edo Oiartzunera eraman zituzten, beraz, kronologia hutsak erakusten digu jada Gipuzkoa mailan gertatzen ari zen nolabaiteko mekanismoekin bat egin zuen.

Bi kasu hauetan, herritarren errepresioa masiboa, arautu gabekoa eta bat-batekoa izan zen. Izan ziren baita, herritar hildako asko jasan zituzten herriak, baina kasu hauetan, hildakoen kopurua tarte luzeago batetan zehar pilatu zen. Agian, Arrasate eta Beasainekiko kasurik antzekoena, Tolosaren kasua izan zen. Tolosa abuztuaren 11n hartu zuten eskuindarrek. Mikel Errazkinek ematen dituen datuen arabera, guda osoan zehar, 86 tolosar hil zituzten frankistek, eta Tolosan bertan 58 lagun hil zituzten⁹⁸. Baina kontutan hartu behar dugu baita hil zituzten tolosarretatik 33 soilik izan zirela Tolosan hilak. Beste alde batetik, hildako 86 tolosarren artean, Errazkinen arabera, %85,7 1936 eta 1937 artean hil zituzten, eta Tolosan hildako denak urte bi horietan hil zituzten, beraz, "berotan" egindako hilketak baten soslai hartzen du. Hala erre, datu batzuk badaude hilketak hauek "planifikatuagoak" izan zirela, edo behintzat, bi logikak, "berotan egindako hilketak" eta "hilketak planifikatuak", bat egin zutela; adibidez, Tolosan 1936an hildako 47 pertsonetatik, 18 hil zituzten, abuztuan, irailean jaitsiera bat izan zelarik, eta urrian eta azaroan hilketak gehiago eman zirelarik⁹⁹. 1936ko abuztuan hildako 18 tolosarretatik, kontuan izanik Tolosa abuztuaren 11n hartu zutela, zazpi izan ziren 11 eta 13 artean hil zituztenak, beste hainbat hil bukaeran hil baitzituzten¹⁰⁰. Bestetik, 1936ko

96. GARAI BENGOA, Juan Ramon: op. cit., 68-69. or.

97. Gerora, ondoko mendietatik, errepublikanoek Arrasate kanoikatu zuten, hainbat zibil, 17 Oktubre Taldearen arabera, hilik suertatu zirelarik. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 335. or.

98. ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo garaian (1936-1945)*. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2011, 88. or.

99. Ibid., 91. eta 95. or.

100. Badaude bi kasu, Jose Subtil Sanz eta Lazaro Lasa Jauregui, abuztuaren 11 baino aurretik fusilatutako izan zirenak. Tolosako auzoetan, kolpistek hiria bera hartu baino lehen hil

azken hilabeteetan, zenbait tolosar Tolosatik kanpo ere hil zituzten, hauen kasuan bai "arauz kanpoko errepresioaren" zein "araututako errepresioaren" edo guda kontseiluen ostean¹⁰¹. Beraz, Tolosako edo tolosarren hilketen kasuan, zenbakiz handia bada ere, kopuru hori hainbat logika hiltzailerren bilbatzea izan zuen, hemen ikertzen dugun kasuan logika bakar bat nagusitu zelarik: berotan hiltzekoa.

Beraz, Beasaingo eta Arrasateko kasuak antzeko bezala agertzen zaizkigu, baina ikusi dugunez, bada ezberdintasun bat; kronologikoa, esan bezala "marko" ezberdinak ematen dituena. Hurrengo azpiatalean, tokiko dinamikei so egingo diegu gehiago, bi kasuen arteko ezberdintasunak aurkitze aldera.

3. BI KASU ISPILUAREN AURREAN

Bi herriei buruzko 1936 arteko ibilbide historikoa azalduta, eta 1936ko "bat-bateko" errepresioari buruzko gutxieneko datuak eman ditugularik, oraintxe herri horietan errepresioak izandako arrazoiak eta motibazioak (hildakoen profila barne) eta tokiko dinamikak harremanean jarri behar ditugu. Kontutan izan behar dugu tokiko dinamiken argazki osoa izateko puntu bat falta zaigula: hain zuzen ere, guda hasi ostean, altxatuek herria hartu bitartean gertatu izan zirenak jakitea.

Bi herrietan, herriak defendatzeko Defentsa Komiteak eratu ziren. Gipuzkoako beste toki batzuetan ez bezala, bai Beasainen zein Arrasaten komiteak nahiko pluralak ziren; ezkerreko indarretako zein EAJko kideak biltzen baitzituzten. Bi tokietan, Komite hauek indarrik erradikalenak (komunistak eta anarkistak) kanpoan utzi zituzten¹⁰²; beraz ondorioztatu dezakegunez, 1936an ez batean ez bestean ez zen iraultza-prozesurik gertatu, eta Komite hauek Udala ordezteko prozesua nahiko adostua izan zela pentsa dezakegu. Hala

zituztenak. Bigarrena baserrian hil zuten, eta ematen zuenez, bonbaketa baten fruitua izan zen. Subtil, antza denez, eztabaida baten ostean.

101. Ibid., 88-114. Beste iturri bat, modu dibulgatiboagoan idatzitakoa irakurtzeko: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, *Joxemi: 1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Aranzadi Zientzia Elkarte, Galtzaundi Euskara Elkarte eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008.

102. Beasaingo Defentsa Komitearen osatzen zuten pertsonen zerrenda bi iturritan aurkitu izan dugu. Hala ere, iturri horiek, biak erregimen frankistaren parte ziren pertsonak edo aparailuek egindako zerrendak dira, beraz nolabait kontuz hartu behar ditugu. Bata, Jose Luis Guridi Beasaingo alkate frankistak eginiko zerrenda bat da, Donostiako 4. Epaitegi Militarren eskaerari erantzunez (Beasaingo Udala Artxiboa. 525 karpeta, 36 dokumentu-sorta). Bestea, Goardia Zibilak eta FET-JONSen zerbitzu sekretuak eginiko zerrenda bat da, zenbait kausa militarretan agertzen dena (adibidez, Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelus dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrascali dagokiona). Arrasateko Komiteari buruz, adibidez: BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil en Guipúzcoa...*, 122-123. or.; edo OKTUBRE TALDEA: op. cit., 200-203. or.

ere, kontuan izan behar dugu, herri biak denbora-epe ezberdinez egon zirela zilegizko Gobernuaren indarraren pe; beraz, ezkertiarrek (eta abertzaleek) neurri prebentiboak edo koertzitiboak hartzeko aukera gutxiago zutela Beasainen, hemen soilik bederatziz egonez egon baitzen Komitea agintean, eta Arrasaten, bi hilabetez. Beasainen, herriko Defentsa Komiteak, armak banatzeaz gain, herriko eskuineko herritar ezagun batzuk atxilotu zituzten, baina egun batzuetara, tropak sartu aurretik askatu zituzten, batere tratu txarrik jasan gabe¹⁰³. Kontuan izan behar dugu Beasainen, altxatuak sartu aurretik, tokiko karlistek jada erreketen talde bat osatu eta armatu zutela¹⁰⁴. Arrasaten ordea, zilegizko Gobernuaren aldekoek neurri koertzitiboak hartzeko aukera gehiago izan zituzten: lehen egunetan hainbat erreketek atxilotu zituzten, 91 datu batzuen arabera¹⁰⁵ eta 96 beste iturri batzuen arabera¹⁰⁶; beste karlista batzuek Gasteizera alde egin zutelarik. Abuztuaren 4an, sei zinegotzi kargugabetzea eta sei Udal-langileren kaleratzea erabaki zuten. Jose Maria Uranga arrasatear karlistaren arabera, 1936ko abuztuaren 15ean atxiloteta berriak egin zituzten ezkertiarrek, presoak gaizki tratatu eta hiltzeaz mehatxatu omen zituztelarik¹⁰⁷. Azkenik, Abuztuaren azken egunetan hiru karlista hil zituzten, antza denez altxatuen kontrolpeko zonaldera pasatzen ari zirelarik¹⁰⁸. Gainera, Urangaren arabera, uztailaren 18an, ezkertiarrek Zirkulu Tradizionalista itxi egin zuten, eta 19an Sindikatu Aske Profesionala¹⁰⁹. Halako gertakariak ez ziren Beasainen gertatu. Dena dela, errepresio gorriaren dinamikarekin jarraituz, esan beharra dago Arrasateren kasuan ere, "goitik" errepresioa leuntzeko saiakerak eman zirela, adibidez Celestino Uriarte komunista arrasatearrak Bilbon atxilo zeuden eskuindar arrasatearrei ezer ere gertatuko ez zitzaizela esanaz karta bat bidali

103. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: op. cit., 255-260. or. Eskuindar hauetako batzuek, Guda Zibilean eta frankismoan, tokiko mailan, paper garrantzitsua jokatu zuten,

104. Ibid., 248. or.

105. BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...*, op. cit., 54. or.

106. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit. Atxilotuen artean Uranga bera egon zen. Atxilotuak Arrasateko Viteri Eskoletan eta gero Bergarako Seminarioan izn zituzten. Atxilotu hauetako asko, gerora Bizkaira eraman zituzten, baina Urangaren arabera, han ez zuten Arrasateko eskuindarrak hil.

107. Ibid.

108. Oktubre Taldeak hiru karlista zirela esaten du, Uranga Arreguik biren izena ematen du: Lino Mardaraz eta Lucio De la Cruz. Urangaren arabera, beste bi karlistak, Felix Sagasta eta Angel Echave eurekin batera atxilotu zituzten, baina senide jeltzale bati esker askatu eta Amaiur batailoi abertzalean alistatu zituzten. Sagasta Asturiasen desagertu zen, ziurrenik hilda. Urangaren arabera, hildako hirugarren eskuindarra, Basilio Lasaga zen, Aramaiokoa, baina ez zen aurrekoekin batera atxilotua eta hila izan, Bergarara eraman baitzuten. Bestetik, gudaren hasieran, "errepresio gorriaren" ondorioz beste bi arrasatear hil zituzten herritik kanpo. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit; eta URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit.

109. Gertakari hauen laburpena: OKTUBRE TALDEA: op. cit., 192-193., 204. eta 303-305. or. Oktubre taldeko kideek itxiera hau, okerbidez, uztailaren 16an ezarri zituzten euren liburuan. Jose Maria Urangak geroago zuzendu zuen. Urangaren arabera, lokal hori Eusko Abertzale Ekintzak hartu zuen, "ikur eta bandera karlista guztiak erre zituztelarik": URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit. Beste idatzi batean, Urangak era badio hori: URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit.

zuen herrira, eskuindarrei Arrasaten berdin portatzeko eskatuz¹¹⁰.

Beraz, bi herrien dinamiken arteko ezberdintasuna azaleraziz zihoan 1936an. Honen bestez, "errepresio urdina" ere ezberdina izan zen bi herrietan. Baina zeren arabera konparatuko dugu errepresioa? Lehenik eta behin, kronologia zehaztu behar dugu. Beasainen, heriotza gehienak, 1936ko uztailaren 27 eta 28ra bitartean egin zituzten, esan bezala 35 eta 38ren artean dugu kopuru hori. Bestetik, badira beste lau beasaindar 1936 urtea bukatu artean hil zituztenak¹¹¹. Arrasateren kasuan ordea, militarrek herria beranduago hartu zuten. Hemen hilketaren kronologia ere beste era batekoa izan zen, pixka bat luzeagoa. Arrasateren kasuan, 1936ko irailaren 29aren eta azaroaren 5 edo 6 artean hil zituztenak hartuko ditugu¹¹². Hemen 43 pertsona agertzen zaizkigu, horietako 31 arrasatearrak edo herriarekin lotura zuzena zutenak izan ziren, eta beste hamabiak, inguruko herrietatik Arrasateko kartzelara eramandakoak. Kontuan izan behar dugu Arrasate irailaren 26an hartu zutela, beraz hemen lehen ezberdintasun bat agertzen zaigu: Beasainen "herrian sartzea hilketak hastea" mekanismoa bat-batekoagoa izango zen. Arrasateren kasuan, mekanismo errepresiboak, bere "beroaldian" izan zuen nolabaiteko "planifikazioa", lehen datu honek adierazten duen moduan.

Arrasatear historiagileek osatutako Oktubre Taldeari jarraiki –Arrasateko gertakizunak zabaldu iturri honek eskaintzen dizkigu, eta honi jarraituko diogu-, Arrasaten lehen hildakoak, urriaren 1ean izan ziren: aurreko egunean bi herritar atxilotu zituzten salbokondukturik ez eramatearren¹¹³. Hauek izan ziren "bertan" izandako hilketa "aleatorioaren" eredura gehien hurbiltzen direnak, hala ere, esan beharra dago, "planifikazio" minimo bat izan zela, izan ere, kartzelatik "aske utzi" eta gero soldaduei tiro egiteko esan baitzieten. Gerorako hilketetan planifikazioa askoz ere handiagoa izan zen: urriaren 1 eta 5 artean militarrek atxilotutako talde bat 9an aske utzi zuten; baina hauetako asko 15ean berriz izan ziren eskuineko "zibilengatik" (karlistengatik) atxilotuak. Egun horretan, lekuko batzuen arabera, Udaletxean bilera bat egin zuten karlistek eta bertan atxilotuak hiltzeko erabakia hartu zuten¹¹⁴. Hogei eta bi pertsona hauek (hamar arrasatear eta hamabi eskualdeko beste herrietakoak), herriko kartzelan izan ondoren, urriaren 20an Hernanira eraman zituzten, han 21ean hiltzeko¹¹⁵. Oso

110. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 352. or. Hala izan zen, Bilbon ez zuten arrasatear presorik hil, baina ikusiko dugun moduan, gutun honek ez zuen balio izan Arrasaten bizitzak salbatzeko.

111. Bada bosgarren bat, Antonio Zubiaga, Getarian hildakoa, baina honen kasuan ez dugu uste Beasainen izan ziren gertakariekin eta "heriotza logikarekin" lotu dezakegunik.

112. Lagin honetatik kanpo utzi dugu Rufino Ormaetxea sozialista, hau Nafarroan hil baitzuten, militar altxatuek Arrasate hartu aurretik. Berari buruzko informazioa: OKTUBRE TALDEA: op. cit. 195. or.

113. Ibid., 299. or.

114. Ibid., 301-302. or.

115. Ibid., 308-311. or.

esanguratsua izan zen talde honekin gertatutakoa Arrasateko errepresioaren mekanika ulertzeko. Baina, hilketak ez ziren hor geratu: egun batzuk geroago, urriaren 25 eta 26 artean, lau pertsona lehenik Ondarretako kartzelara eraman eta gero Oiartzunen hil zituzten, horietatik hiru herritik kanpo jaiotako baina herrian errotutako apaizak ziren: Jose Joakin Arin, Jose Markiegi eta Leonardo Guridi.¹¹⁶ Azkenik, azaroaren 5 eta 6 artean, toki berean, azaroaren 2an eramandako beste hamabost herritar hil zituzten¹¹⁷.

Beasainen, hilketak 1936ko uztailaren 27ko arratsaldean bertan hasi ziren. Hildako gehienak, goizaldean hil zituzten (atxiloketa arratsaldean izan bazen ere), hilerrian, eta bertan ehortziak izan ziren, horietako asko Matias-Enetik eraman zituztelarik¹¹⁸. 27tik 28ra doan egun horretan egindako hilketa den-denak herrian bertan izan ziren, eta baita ere ehorzteak (nahiz eta gero zenbaiten kasuan familiakoek hildakoa famili hilerrira eraman). Arrasaten ordea, bestelako heriotza-forma ditugu, heriotza gehienak herritik kanpo izan baitziren (nahiz eta hiltzeko erabakia herrian bertan hartu); irailaren 30ean hil zituzten bi herritarrek ezik, beste denak herritik kanpora eraman zituzten hiltzera: urriaren 21ean hildakoak Hernanin erail zituzten, eta urriaren 25 eta 26 artekoak eta azaroaren 5 eta 6 artekoak, Oiartzunen.

Beasainen, hildakoen artean, borrokan hildakoak ez zirenen artean, patroi oso heterogeneo topatzen dugu. Borroka izan zela eta atxilotua edo errematua izan ziren hamaseiak kenduta; hemeretziaren artean, patroi oso heterogeneoa topatzen dugu¹¹⁹, baina oso deigarria zaigu datu bat: militante esanguratsurik ez topatzea. Hauen artean, soilik lau topatzen ditugu alderdi antipolista batetako kideak zirenik, hiru sozialista eta jeltzale bat¹²⁰; eta gainera, zitekeenez, azken hau, Victor Uribe-Etxebarria, ez zuten hil bere militantzia

116. Laugarren herritarra Joseba Zeziaga izan zen. Jose Maria Uranga karlistaren arabera, hiru apaiz hauek 1.931ean "ideial abertzaleen arabera sortu zen eskola euskal-katoliko bat eratzen lagundu zuten (...) eta karlistek proiektatutako eskola katoliko bat zabaltzea boikotatu zuten". Beraz hauen hilketa ere erabat politikotzat eta herrian errotutako alderdien arteko gorrotoaren fruitu gisa hartu behar dugu; hala ere egiten du Uranga berak, "halako politika-kontuek eragin erabakigarria izan zuten hiru apaiz haiek Donostiara eramate eta Oiartzunen erailtze inolaz ere justifikagarri hartan". URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit.

117. Ibid., 317. or.

118. Zuzeneko testigantzak: ELIZONDO, Mauro: op. cit., 44-45. or.; eta Beasaingo Udal Artxiboa; Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean. Gure datuen arabera, gehienez zortzi salbuespen egon ziren, hilerritik at fusilatuta zituztenak: KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon, op. cit., 353. or.

119. KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon, op. cit., 296-297. or.

120. Profil militanterik handienak zuten eraildakoak, ironikoki, eskuindarrak ziren: Andres Izaguirre, Beasaingo Zirkulu Tradizionalistako lehendakaria; eta Guillermo Ugarte, karlista baita ere, Primo de Riveraren garaian zinegotzi izandakoa. Honek gure tesi nagusiari indarra ematen digu: Beasaingo errepresioa "aleatorioa" zenekoa. Garcia Urcelayetak nahiko zuzen kontaktzen ditu hauen atxiloketen inguruabarrak (GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit.).

politikoa zela eta, baizik eta militarrei bere etxea erre ziotela eta kexatzearen¹²¹. Sozialisten artean, Juan Gonzalezen erailketa ere zaila da haren militantziaren ezagutza zela eta azaltzea¹²². Beste bi militante sozialisten erailketa bai, argi eta garbi politikoki motibatua izan zen, Elkarte Sozialistaren egoitzan atxilotuak izan baitziren, baina hauek gazteak ziren, Gazteria Sozialistakoak: Saturnino San Martin eta Marcelo Bergara, eta ez zuten profil ezagunik¹²³. Hauez gain, hiru zibil hil ziren armatuta: Ignacio Onesimo, Isidro Igartua eta Francisco Ruiz de Apodaca. Kasu hauetan, hirurak ezkertiarrek ziren, gainera, herria defendatzeko hautua egiteko konpromezu militante bat auresuposatu ahal zaie. Onesimoren kasuan, ez dugu alderdiko kideztari ezagutzen, bere familian ezkertiarrek baziren ere. Igartuaren kasuan, Beasaingo familia sozialista ezagun baten kide zen¹²⁴, nahiz eta bere kasu pertsonalean kargurik ez izan, eta ordura arte ez nabarmendu. Francisco Ruiz de Apodacak, ordea bazuen profil handiagoa: anarkista zen¹²⁵, 1934ko urriko greba iraultzailean parte hartzearen atxilotu zuten, eta kartzelan egon zen. Baina ikusten dugun moduan, 1936eko uztailaren 27 eta 28 artean eraildakoen artean ez zen ez Beasainen zinegotzi izandakorik, ez Beasaingo Defentsa Komiteko kiderik, ez alderdi batetako zuzendaritzako kiderik. Hain zuzen ere, egun horretatik 1936 urtea bukatu artean hil zituzten lau beasaindarren inguruan profil politiko handiago bat topatzen dugu: horietako bi, Isidro Igartuaren aita eta anaia, hirugarrena Gregorio Begue errepublikanoa, eta laugarrena Victoriano Oñatibia abertzalea¹²⁶.

121. GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. eta 71. or. Garcia Urcelayeta Victor Uribe-Etxebarriarekin batera egon zen atxilotuta, eta berak komentatu zion zergatik atxilotu zuten. *La Voz* egunkariaren 1937.eko maiatzeko 16ko kronikak ere bertsio hau dakar.

122. Juan Gonzalez ere Garcia Urcelayetarekin egon zen atxilotuta. GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 62. or. Hala ere, Garcia Urcelayetak hemen akats bat egiten du, izan ere, berarekin batera atxilo zeuden artean "ezkertiarra zen inor ez" ez zela zioen. Bestalde herritar batek, Anselmo Ruizek militarrek Gonzalez atxilotzen ikusi zituela esan du, baina "ez zuen kontziante ematen nora zeramatenik". Horregatik egiten zaigu zaila bere militantziagatik atxilotu zutela esatea, hala balitz, kontziante izango zatekeelako. (Beasaingo Udal Artxiboa. Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25).

123. Hauen inguruan gehiago jakiteko: Beasaingo Udal Artxiboa. Egileak Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30; eta Beasaingo Udal Artxiboa. Egileak Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3. Bestetik, *El Liberal* egunkariaren 1936.eko abuztuaren 13ko kronika, *Euzko Deyaren* 1937ko martxoaren 21eko kronika eta *La Voz* en 1937ko maiatzaren 16ko kronika.

Bosgarren zibil bat, Victoria Huergo Tofe, *La Voz* egunkariaren 1937ko maiatzeko 16ko kronikan agertzen zenaren arabera, militarrei "ni komunista naiz!" esatearren hil zuten; baina bere familiak ez du sinesgarri jotzen bertsio hori, familia hartan ez baitziren komunistak. (Beasaingo Udal Artxiboa. Egileak Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17)

124. Bere aita eta bere anaia egun batzuk geroago hil zituzten altxatuek.

125. Bere anaiek Eusko Abertzale Ekintzako gudari bezala guda egin zuten, eta bat gudan hil zen.

126. Bada zerrenda honetara gehi genezakeen bosgarren beasaindar bat, Antonio Zubiaga, baina hau Getarian hil zuten, bere kasuak Beasaingo dinamikarekin zerikusi gutxi zuela ondorioztatzen dugu.

Arrasaten ordea, eraildakoen artean aurkitzen ditugu profil politikoa handia zutenak. Baina ikusten dugun moduan, hauek ez ziren 1934ko Iraultza bultzatu zuten alderdietako kideak, EAJkoak baino. Hori ere, zenbait faktorek azal dezakete. Faktore bat, ezkerreko indarreko kideek, zetorrena ikusita, herritik alde egitea izan zen. Juan Ramon Garairen arabera, "Debagoienako populazioaren %60ak egin zuen alde"¹²⁷. Hala, hildakoen artean, baditugu, besteak beste, Benantzio Gaztañarez Gipuzko Buru Batzarreko idazkaria, Raimundo Galdos Arrasateko ELAko langilea, Joseba Zeziaga EAJko kidea, Leonardo Guridi apaiza, EAJren GBBko kidea edo Gregorio San Pedro EGIko kidea. Gainera, kontuan hartu behar da, atxilotuta Gasteizera eramandako Felix Zulueta, kartzelan gaixotu eta gutxira hil zela. Ikusten dugun bezala, kide esanguratsuak, baina kasu honetan jeltzaleak. Oktubre Taldeak, arrasatear hildakoetatik 18 "nazionalista", "jeltzale" edo "EAJren botu-emaila" bezala identifikatzen ditu. Kasu honetan, sozialistak gutxiengoa ditugu, euren artean, adibidez, Maria Areitio, Florentzia Olazagutia, Frantziska Oianguren edo Roman Bereizibar ditugu adibide¹²⁸. Hala ere, hemen garai horietan Gipuzkoan jarraitzen zuten eskemarekin bat zetorren errepresioa, izan ere 1936an, jeltzaleak izan ziren Gipuzkoan errepresioa gehien jasan zutenak, 1937tik aurrera ezkertiarren kontrako errepresioak jeltzaleek sufritutakoa gaindituko bazuen ere¹²⁹.

Zer adierazten digu honek? Alde batetik, Beasainen gertatutako heriotzak, lehen momentuan izandako heriotzak izan zirela, kolpea eman eta berehala. Herri honetan Errepublikara garaian, ez Guda Zibileko altxatuak sartu aurretikako egun apurretan, ez zen gorrotzko erakustaldirik ezta ere polarizazio handirik izan. Bestetik, hildakoen arteko profil heterogeneoak adierazten digu masakrea egitea agindu zuena ez zela herritarra izan (nahiz eta esan bezala, gero herritar batzuek parte hartzea izan). Kontuan izanda Beasainen egun bateko borroka egon zela herria hartu aurretik (uztailaren 26an herritar armatuek eutsi egin zioten altxatuen erasoari), gure ustez "heriotzaren gurgila" militarrek jarri zuten martxan. Bestetik, arrazoia dugu, hau da, Beasainek adierazten digu "heriotzaren logika beasaindarra", aleatorioa izan zela selektiboa baino. Hau da, beasaindarrak Beasain "zenagatik" zigortu nahi izan zuten, pertsona bakoitzak "egin zuenagatik" baino, eta herrian kalean harrapatutako edonor izan zitekeen fusilatua. Hau da, komunitatea, "ezkertiarzat" jotzen zena, zen jomugan zegoena. Herritar batek Pablo Cayuela lotinant-koronelari "hau komunisten eta ezkertiarren herri bat da" esaten entzun omen zion¹³⁰.

Arrasaten ordea, bestelako logika bat azaltzen zaigu. Bertan, esan bezala,

127. GARAI BENGOA, Juan Ramon: op. cit., 68. or.

128. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 300-329. or.

129. BARRUSO BARES; PEDRO: *Violencia política y represión...*, op. cit., 207-222. or.; eta AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GÓMEZ, Jesus Mari eta ODRIÓZOLA, Jon: op. cit., 159. or.

130. Beasaingo Udal Artxiboa. Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22). Jabier Garcia Bergarak kontatzen duenez, Beasaingo herritar Fernando Laborderen ahotan entzun zuen hau.

hildakoen artean profil homogeenagoa eta politizatuagoa dugu. Baina esan bezala, hildako gehienak EAJkoak ziren, ez sozialistak. Esan bezala, Debagoieneko populazioaren arte handi batek ihes egitea horrekin zerikusia du. Izan ere, herriko karlista batek esan zuen moduan "guda arazoetan ibili direnek alde egin dute, hemen ez dela jende baketsu, umil eta on-ona baizik"¹³¹. Hala ere, hori ez zen izan oztopo gorrotoa apaltzeko: Urangaren arabera, "Donostiara (sic; Hernanira edo Oartzunera eraman zituztenak "Orejaren hiltzaile" bezala deitzen zituzten, hura baino gauza okerragorik ez dago"¹³². Izan ere, hiltzaileen arabera, "iraultzaileak" ezin zigortzeak, ekar zezakeen, "ordez", "iraultzaren gaizkideak" zigortzeko nahia, euren begietan jeltzaleak hala zirelarik. Kontuan izan behar dugu, gudaren hasieratik, militarrek eta eskuindarrek EAJ eta ezkerria (hots, "iraultza") euren terminoetan, identifikatzeko joera zutela; adibidez, Gasteizko eta Iruñeko gotzaiek abuztuaren 6an egin zuten karta pastoralera, EAJk errepublikanoekin bat egin zuela salatuz. Testigantza ugari daude 1936an altxatutako militarrek eta euren aldekoek jeltzaleak (apaizak barne) iraultzaren gaizkide bezala tratatzen zituztela, adibidez, Fidel Azurza, Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistaren buruak hala egin zuten Mateo Mugica gotzainarekin abuztuaren 22an gurutzatutako karta batzuetan, eta Fal Conde karlisten buruak ere apaiz abertzaleak gogorrago zigortzeko eskatu zuten irailean bertan¹³³. Gainera badugu karlisten eta jeltzaleen artean pisuzko tokiko faktore bat: Arrasateko orduko alkate Nikolas Uriarte jeltzalea zela, 1936ko martxoaren 6an aukeratua, karlisten bozkekin, beraz suposatu dezakegu arrasatear karlistentzat, jeltzaleen "traizioa" are handiagoa izan zela¹³⁴. Beraz, sinestekoa da militarrek herria hartzerakoan Arrasateko karlistek herriko jeltzaleez gorroto handia sentitzen zutela¹³⁵. Celestino Uriarte komunistak 1936an Arrasatera bidalitako gutun batek, non Bilbon preso zeuden eskuindar arrasatearren bizitza bermatzen zuen, eta Arrasateko agintariei ere berdin egiteko eskatzen zien¹³⁶, ez zuen balio izan tokiko gorrotoak elikatutako

131. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 301. or.

132. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit.

133. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 206-207. or.

134. Jose Maria Urangaren arabera, errepublikano eta sozialisten taldea zatitu egin zen, batzuk, Eugenio Resusta eta Luis Martinez de Ubago alkate izandakoak, "kontserbakorrakoak" izan zirelako. Beraz, karlistek eta abertzaleek batera bozkatzeko akordioa izan zuten, zozketaz aukeratutako alkategaiari botoa ematea adostu zutelarik. Zozketa horretan agertu zen Nikolas Uriarteren izena, hala karlistek honen alde eman zuten botoa. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón...", op. cit. Beste idazki batean ere, Urangak bertsio hori erreplikatu du. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit.

135. Mikel Aizpuruk zuzendutako taldeak ere iritzi bera du, batez ere Arrasateko hiru apaizen hilketari dagokionez: aurreko egunetan bi euskal gotzainek sinatutako pastoralak Arrasateko eskuindarrak jeltzaleen (edo hauen aldekotzat hartzen zituztenen, apaizen kontra baita) kontra asaldatu zitzaizkeen esanez. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 211. or.

136. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 35. or.

"heriotzaren logika arrasatearra" apaltzeko.

Honi jarraituz, esan beharra dugu "heriotzaren logika arrasatearrak", izaera selektiboagoa du, zorizkoa baino; eta arrazoia "mendekuan" izan daiteke; hots, 1934ko gertakarietan, edo 1936ko uztail eta iraila arteko egunetan gertatutakoetan. Jose Maria Uranga Arregui arrasatear historialari karlistak, "ezer justifikatu nahi gabe", hilketak azaltzeko eman zituen arrazoiaren artean aipatzen ditu bai 1934ko iraultza eta bai 1936ko udako hilabeteetan gertatutakoak¹³⁷. Honek, gure ustez, zerikusia du hilketaren izaera "selektiboarekin": kasu honetan izan zen "arrasatear onen" –hilketa bultzatu zutenen eta hauen aldekoen- eta "gaiztoen" –biktimen eta hauen aldekoen- arteko bereizketa egin izan zela. Honi buruz, badugu Juana Uranga herritarraren testigantza. Honen, arabera, bere senide bat Ondarretara joan zenean Urangaren aitaz interesatzera, kartzelako zuzendariak "herrian fama txarra duzue, Arrasate da zuek hil nahi zaituztena" erantzun zien¹³⁸. Beraz, pentsa dezakegu "hiltzeko logika arrasatearrean" eta honen izaera selektiboan, herrian aurreko urte zein hilabeteetan gertatutakoak pisu handia izan zuela, Beasainen gertatu ez zen moduan; eta horrenbestez, herriko "eskuin zibilak" ere hilketetan pisu handiagoa izan zuela, militarren parte-hartzea ahaztu gabe.

Bi kasuak konparatzerakoan, beste aspektu bat dugu errepresioaren "bultzatzailea" nor izan genuen jakitea. Kasu honetan, gure ustez bada errepresioaren biktimen profilarrekin eta errepresioaren izaerarekin bateragarria. Gainera, Arrasaten badugu datu bat hori baieztatzen duena: herriko karlista ezagun batzuek Udaletxean egindako bilera batez hitz egiten dute testigantza batzuek. Beasainen, eskuindarrek izan zuten parte-hartzea mugatua izan zen; hala erakusten du eskuindar esanguratsu batzuk militar kolpistek eurek hilak (Andres Izaguirre Zirkulu Tradizionalistako lehendakaria kasu¹³⁹), edo momentu batez okerbidez atxilotuak izanak (Epifanio Arguiñano, gerora erreketean kapitain izandakoa kasu¹⁴⁰); beraz, masakrea martxan jarri zen momentuan, eskuindar zibilek ezin zuten parte-hartze handirik izan. Honek ez du esan nahi behin gurpila martxan jarrita salaketarik egon ez zenik, edo are gehiago, egun hori pasatuta, eskuindarren parte hartzerik izan ez zenik. Izan ere, jakin badakigu hurrengo egunetan Epifanio Arguiñano buruzagi karlistak zenbait pertsona atxilotu eta heriotzara eraman zituela, adibidez Jesus

137. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit.; eta OKTUBRE TALDEA: op. cit., 303-304. or.

138. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 307. or.

139. Andres Izaguirre, Pedro Mocoeroa apaizarekin bat beste atxilotu bat, Ramon Crespo Igarza atxilotetatik libratzen saiatzen ari zela atxilotu zuten. Mocoeroa ez zuten atxilotu, baina bai Izaguirre zein Crespo erail egiten zituzten.

140. GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. or.

Bujanda CAFeko langilea¹⁴¹. Beste herri testigantza batzuek ere Arguiñano salatzaile bezala markatzen dute, bai herrian bertan eta bai frontean¹⁴². *Euzko Deya* egunkariaren 1937ko martxoaren 21eko kronikak ere "Guda Batzorde Karlista" bai aipatzen du hilketen erantzule. Baina, dena den, Arguiñanoren eta kideen salaketak, masakrea hasi eta ordu batzuk *geroago* izan ziren, jokabide moralaz haratago ez ziren hilketa masiboa hasteko erabakigarri izan¹⁴³.

Arrasaten ordea, eskuinak askoz ere parte-hartze handiagoa izan zuen; gertakari bik erakusten duten moduan. Lehena, eskuin "zibilak", hots herriko karlistek militarrek erabakitako errepresio-mailari gain hartzeko gogoa izan zen. Hainbat adibide ditugu honen inguruan: alde batetik, urriaren 1ean militarrek emandako mitin batean, "ez gatoz errebantxa egitera" esan ondoren, karlistek zerrenda beltz bat prestatzea eta berehala atxilotekin hastea¹⁴⁴. Bestetik, aipatu dugun moduan, Udal-aretoan urriaren 15ean egindako bilera izan zen. Bertan, herriko karlistek eta Urraca Pastor buruzagi karlistak parte hartu zuten, eta bertako testigantza batek esan zuen moduan "ez ziren gorrotozko hitzak beterik esaten, *denak fusilatu!* eta halakoak"¹⁴⁵. Esanguratsua da egun horretan, militarren urriaren 9an libre utzitako presoak berriz atxilotu zituztela karlistek, hots "berriz epaitzearen" aldeko joera (eta hainbat eta zigorrik zabalena ezartzearen aldekoa) argia zen. Oktubre Taldearen arabera, hiltzeko gogo hau erakutsi zuten karlistak herriaren jaun eta jabe ziren: orduko Udalaren batzorde kudeatzaileak ere urriaren 15ean dimititu zuen postutik, "zer zetorrela ikusirik". Azkenik Vara del Rey kapitainak ere, halako joera erakusten zuen; izan ere, jakinda Udal-aretoan izan zen batzarraz "atxilotutakoak, libre utzi ditugu erredun aurkitu ez ditugulako, zibilek berriz atxilotu badituzte, ez da gure kontua". Hau da, militarrek "berriz epaitzearen"; hots, hiltzearen (ziur aski jakitun ziren) erabakia begi txarrez ikusten ez bazuten ere, ekimen hori "eskuin zibilaren" partetik abiatu zen: ikusi dugun moduan, hasieratik, urriaren 1etik, izan zen zerrenda beltz bat (urriaren 19an beste bat prestatu zuten) eta honen

141. Beasaingo Udal Artxiboa. Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-IX-18an; eta KORTAZAR-BILLELABEITIA, Jon: op. cit., 369-370. or.

142. Adibidez, Beasaingo Udal Artxiboa. Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Beasaingo Udal Artxiboa. Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Beasaingo Udal Artxiboa. Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; Beasaingo Udal Artxiboa. Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27; Beasaingo Udal Artxiboa. Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

143. Kuriosoa da, Jabier Garcia Bergara herritarrak dioen moduan, Arguiñanok Pablo Ventureira deitutako herritar bat fusilatetik salbatu zuela, hilerrian, hots, fusilatzeen tokian zegoela. Beraz, argi dago, lehen momentu horietatik kanpo nolabaiteko parte-hartzea izan zuela. Beasaingo Udal Artxiboa. Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

144. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 300. or. Lan honetan aipatzen dutenez, zerrenda hau "guda hasieran Gasteizera ihes egindako eta Arrasate erortzearekin bat herrira itzultitako buruzagi karlistek prestatu zuten".

145. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 301-302. or.

ondorengo atxilotetak. Beasainen, zerrenda beltzak, izan baziren, askoz ere erabakimen txikiagoa izan zuten. Alta, Arrasateko ikerlari taldearen arabera, Arroyo komandantearen ordeiz Latorre komandantea ezartzea, errepresioa larriagotzeko faktore bat izan zen¹⁴⁶.

Bigarren ezberdintasuna, izan zen toki bakoitzeko eskuin politiko "zibilak" (eskuindar asko erreketean paramilitarreko kideak ziren) izan zuen jarrera. Esan dugun moduan, Beasainen ez zegoen jarrera bakar bat izan: ikusi ditugu errepresiora gogoz batu zirenak, baina baita ere errepresaliatuak laguntzen saiatu zirenak; adibidez Andres Izaguirre Zirkulu Tradizionalistako kidea eta Pedro Mocoeroa apaiza, eta baita ere hauen portaera publikoki deitoratu zutenak, Guillermo Ugarte kasu¹⁴⁷. Are gehiago, Beasainen, gerora errepresioari batu zitzaion "eskuin politikoko" ordezkari bat, Epifanio Arguiñano, ordu batzuek militarrek atxilotua egon zen¹⁴⁸. Beraz, tokiko eskuin politiko honek ez zuen izan gertakarien gainean eragina izateko aukera handirik. Arrasaten, aldiz, eskuin zibilak askoz ere portaera homogeneousagoa eta gogorragoa izan zuen, aipatutako urriaren 15eko Udaletxeko batzarra lekuko. Baina portaera hori ez zen zuzendariena soilik, "eskuineko masak" ere parte hartu zuen. Tokiko historiagile talde baten lanean bildutako testigantzen arabera, hainbat hildako, hamalau guztira "karlistek salatuak" izan ziren¹⁴⁹. Ikusi dugun moduan, urriaren 1etik zerrenda beltz batek funtzionatzen zuen, eta horrez gain, urriaren 19an Arrasateko karlista batzuk Gasteizera joan ziren antza denez 1934ko Iraultzak –eta Marcelino Orejaren hilketan- parte hartzea izan omen zuten herritar batzen zerrenda beltz batekin¹⁵⁰. Honen inguruan, Uranga Arregui karlista arrasatearrak bere herkide eta ideologiakideen pisua apaltzera jo zezakeen esaldi bat uzten digu: "Gasteizera eraman zituztenak bizirik atera ziren, Donostiara eraman zituztenak ordea ez"; heriotzaren faktore nagusia Donostian –eta ez Arrasaten- egongo balitz bezala¹⁵¹. Baina Arrasateko bertako eskuindarren portaeraz nahiko testigantza daude, hauen portaerak "heriotza-faktore" horretan izan

146. Ibid., 302. or.

147. Ugarte eta Izaguirre erailak izan ziren.

148. Arguiñano eta Andres Izaguirrez gain, hirugarren eskuindar bat izan zen atxilotua, Miguel Quintas (GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. or.). Quintas eta Arguiñano, ezkerrekoek atxilotuta egon ziren egun batzuek, Beasainen militarrek sartu aurretik.

149. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 314-327. or.

150. Ibid., 303. or. Liburu honen egileen arabera, "zerrenda beltz" horretan agertutako pertsona batek ere ez zuen izan Orejaren hilketan parte hartzerik. Uranga Arreguik dioenez, Oktubre Taldeak esandakoa "falazia" bat da, "Arrasateko karlista denek baitzekiten" nor hil zituen Edurra, Oreja eta Resusta; honekin arrasatear karlistak eta zerrenda beltzen erabilera disoziatu nahi duelarik. Baina Uranga berak geroago dioela Arrasateko heriotzak "egoerari erreakzio" moduan izan zirela; beraz bere iritziak kontraesankor gisan ikusten ditut. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit. Bestetik, Mauro Elizondoren arabera, eskualde horretako Bergaran ere zerrenda beltzak erabiltzen zituzten karlistek. Ikus, ELIZONDO, Mauro: op. cit.

151. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit.

zuten pisua oso handia zela erakusten dutenak. Atxiloketen aurrean, herritar eskuindarrek atxilotuak iraintzen ohi zituzten; badakigu, adibidez, emakume karlistek, *Margaritek* hiltzera zeramatzaten presoei edo hauen alargunei irain egin zietela, edo urriaren 9an, militarrek preso batzuk aske utzi zituztenean, karlistek irain biziz hartu zituztela¹⁵². Gainera, heriotza handiak hasi aurretik, urriaren 13an, karlista talde batek mezatik ateratzean, Arin herriko apaiza iraindu egin zuen¹⁵³. Azkenik, esan beharra dugu erailak izan zirenetako bat, Paula Mujika, halako "irain beroen" giroan atxilotua izan zen, herriko hiru apaizak nola hartzen zituzten ikusita "apaizak ez al dituzue hilko?" galdetuta, bera ere bertan atxilotu baitzuten¹⁵⁴. Kasu honetan, tokiko eskuin politikoko zibilak, gertakariaren gaineko eragin handia izan zuen, eta ikusten dugun moduan, gehienetan militarrek ezarritako errepresio-mugak harandikotzeko erabili zuten eragin hau.

Ikusten dugun bezala, tokiko faktoreek, herritarrengan (eta ez kanpotik etorritako militarrengan) presio izaten duten faktore horiek, "heriotzaren logika arrasatearrean" pisu handiagoa izan zuten "logika beasaindarrean" baino. Uranga berak aipatu izan du "mendeku" portaera bat egon zitekeela. Artikulu honetan erakutsi dugun moduan, Arrasaten indar politikoko ezberdinen arteko giroa oso pitzatuta zegoen: bai karlisten eta sozialisten artean (1934ko iraultza, Zirkulu Karlistaren itxiera, Errepublikaren politika laikoa), baina baita ere karlisten eta nazionalisten artean (1931eko "euskaletako eskola katolikoaren" irekiera eta karlisten "eskola katolikoa" ezin irekitzea, 1936an karlistek gudan aurka izango zen alkate jeltzalearen alde bozkatzea). Bestetik, 1936ko uztailean eta irailan artean, errepresio gorria gogorragoa izan zen Arrasaten Beasainen baino, horrek, Urangaren hitzetan Arrasateko eskuinaren jarrera gogortu zezakeelarik, edo eskuindarrek jarrera gogortzeko justifikazio bat bertan aurki zezaketelarik¹⁵⁵.

Honez gain ere, errepresioaren dinamika ezberdinak ere ikusten ditugu. Alde batetik, Beasain, militarrek eta eskuindarrek Estatu-kolpea eman eta berehala hartu zuten herri bat izan zen. Garai horietan eskuindarrak Nafarroan errepresioa burutzen ari ziren, eta Beasaingoa agian Nafarroakoaren luzapen bat izan zitekeen, are gehiago Gipuzkoan (berez kolpisten aldekoak gutxiengoa ziren tokian), bertakoak beldurtzeko saiakera gisa. Kontuan izanik bertako hilketa militarrek egin zutela, oraindik Nafarroako buru militar Emilio Molaren agindu beldurgarriak ("kontrakoak eta are zalantzan daudenak estermintatu") militar hauen portaeran pisua izan zezaketen. Arrasaten, ordea, errepresioa urri

152. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 301. eta 307-308. or.

153. Ibid., 301.

154. Ibid., 326. or.

155. URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit.

eta azaro artean izan zen, Estatu kolpea eman eta hilabete batzuk beranduago, eta Donostia hartu eta hilabete geroago. Beraz, bertan eman zen errepresioak, jada Gipuzkoan funtzionatzen zuten dinamikekin zerikusi handiagoa zuten, hori ikusten da adibidez, hil behar zituztenak jada funtzionatzen ari ziren Hernaniko eta Oiartzungo fosa amankomunetara eramateak.

Bi kasuetan hildakoak erailak eta ez fusilatuak, hau da inolako epaiketarik gabe atxilotuak, kondenatuak eta exekutatuak izan zirelarik – beraz, “araz kanpoko errepresioaren” biktima bezala ditugu-, kontuan izan behar da Beasainen bertan hil zituztela, kasu batzuetan tortura ostean. Arrasaten gertatuko “logikak”, hiltzerako orduan “planifikazio” handiagoa – eta krudelagoa- ere erakutsi zuen, izan ere, hildako gehienak “askatasuna” sinatu arazi ostean hil baitzituzten, lehen esan bezala, jada orduan indarrean zegoen ohiko prozeduraren arabera. Hildako arrasatearrak ziuurrenik, Hernanira eraman zituzten lehen hildakoen artean daude. Mikel Aizpuruk zuzentzen duen taldearen arabera, 1936ko irail bukaeran hasi ziren Hernaniko erailketak, urriaren 9an handiagotu egin zirelarik¹⁵⁶. Arrasatetik Hernanira eramandakoak, urriaren 21ean hil zituztenak, jada Ondarretako kartzelatik eraman zituzten. Are gehiago, Aizpuruk zuzendutako taldearen arabera, urriaren bukaeran Hernanin erailtze masiboak bukatu egin ziren (azaroaren 5ean izan zen azkena), halako erailketak Oiartzunen egiten hasi zirelarik. Arrasatetik Oiartzunera talde bat urriaren 30ean eraman zuten, eta beste bat azaroaren 5ean¹⁵⁷. Azken datu hauek beste ondorio batetara eramaten gaituzte: Arrasaten egon zen errepresioa Gipuzkoako errepresio-dinamikekin bat zetorrela, jada Gipuzkoan agintaritzak kolpista ezarrita eta nolabait, “Gipuzkoa osora begirako” errepresio-plangintza egiteko gaitasuna zutelarik; Beasaingoa ordea, gehiago izan zen “nafar logikaren” erako errepresioa, Molaren hitzetatik eratorriz Nafarroan lehen egunetan aplikatu zenaren antzekoa.

Azkenik, ezin dugu artikulua alde batera utzi bi herriok elkartzen dituen erailketa bat aipatu gabe, nahiz eta erailketa hau gure kronologiatik pixka bat aldentzen den. Victoriano Balerdi medikuaren kasuaz ari gara. Balerdi mediku arrasatearra, 1936ko urrian atxilotua izan zen, akusazio faltsu bat tarteko. Azaroaren 2an, Oiartzuna eraman zuten, baina bera ez zuten fusilatu (bai beste 15 preso arrasatearrak). Balerdik herriko karlisten aldetik mehatxuak jasaten zituen, eta azkenean Beasaingo CAFeko mediku kargua lortu zuen. 1938ko azaroaren 13an, lana bukatuta, etxera bidean zihoala hil egin zuten Lazkaoko udalerriaren mugen barruan; zitekeenez hiltzailea Jose Garmendia izeneko bat izan zen¹⁵⁸.

156. AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 149. eta 170. or.

157. Ibid., 176. or.

158. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 317., 322. eta 329. or. Esan beharra dugu azken puntu hau Uranga Arreguik ihardetsi egiten duela, bere ustez Balerdi “istripu batean hil zen, bizikletan zihoan

4. ONDORIOAK

Lan honetan, bi kasu partikular aurkeztu ditugu, 1931 arte nahiko antzeko profila aurkeztu zituzten bi herrien kasuak. Bi herriek industrializazio goiztiarra, industria handiaren presentzia, ideia liberalen onarpen-maila handia eta langile mugimendu indartsu baten lekuko izan ziren 1931 urtea heldu baino lehen, beraz, esan dezakegu, Errepublikarekin bat egiten zuen soziologia zutela (1931ko Gipuzkoan salbuespena zena). Gainera, 1936ko gertakari beltzek ere bi herrien antzekotasunak (eta era berean gainontzeko gipuzkoar herriekiko salbuespen izaera) azpimarratu zituzten, bi herrietan kolpistek errepresio masiboa eta arauz kanpokoak burutu baitzuten.

Hala ere, ikusi dugun moduan, bi herrietan errepresioa burutzeko motibazioak ezberdinak izan ziren: batean, ematen duenez, militarrek izan ziren hilketa egiteko interes handiena erakutsi zutenak, bestean ordez, zibilak izan ziren militarren gainetik 1931 eta 1936 artean bi herriek egindako ibilbide ezberdinak motibazio ezberdin horietan zerikusia izan zuten; motibazio hauek, batez ere aurreko hilabete eta urteetako herrietan gertatutakoarekin zerikusia izan zezaketelarik; hain zuzen ere, tokiko faktore gehien eman ziren tokian, bertako herritarren parte-hartze errepresibo handiagoa ekarri zuelarik.

Arrasateko kasuan, eskuin "zibil" politikoa izan genuen hilketaren bultzatzaile nagusia, bai urriaren 16an Udaletxearen aretoan bertako karlistek izan zuten bilerak, zein hasiera batetik zerrenda beltzekin ibili izanak hori erakusten dute. Eta ikuskera hau berresten duen beste adierazle bat izan zen hildako asko, militarrek atxilotu eta aske utzi ostean karlistek "berraxilotutako" pertsonak izatea. Aldi berean, kontuan hartu behar dugu Arrasateko eskuindarrek atxilotetak ospatu egin izan zituztela, atxilotuak iraindu egiten zituzten bitartean. Beraz, militarren gainetik herritarren partetik badugu beste herritar batzuk zigortzeko nahia; militarren konplizitatearekin bazen ere, bertako eskuindarrak izan ziren gehien bultzatu zutenak, eta "herrikide gaiztoak" markatzeko borondate handiena erakutsi zutenak. Azaldu dugun moduan, Arrasate polarizazio politiko eta sozial handiko herria izan zen, bertan karlistek sozialistekiko zein abertzaleekiko antagonismoa handia erakutsi zutelarik; lehenekiko 1934ko iraultzan gertatutakoagatik, eta bigarrenekiko eskolen auziagatik.

Beasaingo kasuan, aldiz, Errepublikaren garaian polarizazio oso txikia izan genuen 1931 eta 36 artean; honek erakusten du 1934ko atxilotuak laguntzeko

eta kamioi batek harrapatu zuen". URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea...", op. cit. Hala ere, jakin badakigu istripuak probokatuak izan zitezkeela, are gehiago Uranga berak aipatzen duenean hildakoaren alargunak "politika tarteko" (sic) erailketaren hipotesia babesten zuela. Gure ustez Oktubre Taldearen bertsioak, hiltzailearen izena eta geroagoko komentarioak utzita, nahiko pisu handia du bere alde.

herriaren saiakera bateratuak edo 1936ko uztailean, oraindik errepublikanoak agintean egoteak, eskuindarren kontra izan zen errepresio txikiak. Kasu honetan, denetariokoe adierazten dute militarrek izan zirela hilketa handi bat egiteko erabakia hartu zutenak. Hainbat adierazle daude hori erakusteko: hil zirenen artean –borrokan eritu zirenez kanpo-, hildakoez profil politiko nabarmenik ez izatea, Beasaingo eskuindar ezagunenak eurak ere atxilotuak izatea (eta kasuren baten, fusilatuak) eta normalean kalean bertan atxilotuak izatea (ez ziren atxilotuen bila joan). Hiru arrazoi eman genitzazke portaera honetarako, arrazoiok elkar-baztertzaileak ez direlarik: lehena, uztailaren 26 eta 27 artean Beasainen izandako erresistentzia gogorra; bigarrena, altxatuak Nafarroaren burutzen ari ziren errepresio masiboari (Molaren “gurekin ez daudenak edo zalantzan daudenak esterminatu” agindu famatua goiburua) Gipuzkoan jarraipena nahi izatea (Beasain Nafarroako mugatik gertu baitago), eta hirugarrenik, Beasain ezkerreko herri bat izatea. Arrazoi zein edo zeintzuk direlarik ere, hiru kasuetako baten ere ez dugu aurkitzen hilketa bat burutzeko tokiko eskuinaren interes berezirik (honek ez du esan nahi gerora halako elementu batzuk parte hartu ez zutenik). Kasu honetan, masakrea egin zutenen artean ez dugu “herritar onak” eta “gaiztoak” bereizteko asmorik, baizik eta komunitatea zigortzeko borondatea. Ez ziren “beasaindar batzuk”, ezta ere “zigortu beharreko beasaindar egokiak” (hitzak duen krudeltasuna aintzat hartuta) zigortzen, Beasain bera baizik; ez zen zer egin zuena zigortzen, zer zena baino.

Hala ere, kontutan izan behar dugu biak izan zirela “araz kanpoko” errepresioaren erakusgarri, eta bietan militarrek parte-hartzea izan zutela; beraz, araz kanpoko errepresioa ez zen soilik “muturreko” elementu batzuen tresna. Inolaz ere, Beasaingoa guda zibilaren Gipuzkoako eskenatokian inflexio puntu bat izan zen, Gipuzkoan, edozein alde burututako lehen hilketa handia baitzen. Beasain, tropa kolpistak Tolosarako eta Donostiarako bidea egiten ari zirela izan zen hartua, beraz, Gipuzkoako lurralde oso txiki bat kontrolatzen zutenean. Kasu honetan, adierazgarriagoa izan zen Arrasateko hilketa, urrian hasi zena (frankistek irailaren 13an hartu zuten Donostia). Izan ere, Arrasatekoak erakusten du frankistek herrialdeko lurralderik gehiena eta makina errepresiboa martxan bazuten ere, ez zeudela “araz kanpoko” errepresio masiboari uko egiteko prest. Bertako militarrek, nahiz eta bigarren mailako papera izan, errepresioan parte hartu zuten, eta hildako gehienak Hernanin edo Oiartzunen, Gipuzkoa mailako bi erailketa-toki handietan hil zituzten, nolabaiteko probintzia osoko koordinazioa erakutsiz. Honek, izu urdinaren kasuan, militarren eta “muturreko elementuen” elkarlan errepresiboa erakusten du.

Lan honen bidez, Gipuzkoan, Euskal Herrian eta Espainiar Estatuan “izu urdina” aplikatzeko motibazio ezberdinak egon zirela erakutsi nahi izan dugu, motibazio pluralitate honek herri bakoitzaren historia partikularrean zerikusia izan zuelarik. Hala ere, motibazioen pluralitate ezberdin hau, kausa amankomun baten mesedetan ezarri izan zen: Estatu kolpea eman zuen aldearen garaipen

militar eta politikoaren mesedetan; honen aldeko estamentu ezberdinek izu masiboa erabiltzea bultzatu zutelarik edo kasurik leunean muzin egin ez, edo ezikusiarena egin ziotelarik.

5. BIBLIOGRAFIA

Idatzizko iturriak

Artikulu eta liburuak:

AIZPURU, Mikel; APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari eta ODRIOZOLA, Jon: *El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Irun/Hernani, 2007.

ALVARO DUEÑAS, Manuel: "“Por derecho de fundación”: la legitimación de la represión franquista" in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta (koord.); ALVARO DUEÑAS, Manuel; ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (53-132. or.). Ediciones Flor de Viento. Bartzelona, 2009.

ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2011.

ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992.

AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970.

BARANDIARAN FUNDAZIOA: *Jose Miguel Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Barandiaran Fundazioa. Ataun, 2009.

BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica social. (1931-1936)*, Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996.

BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Hiria. Donostia, 2005.

BARRUSO BARES, Pedro: *La Guerra Civil en Guipúzcoa (Julio-Septiembre de 1936)*. Hiria. Donostia, 2006.

BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. EHU. Euskal Herria, 2014.

CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993.

CASTELLS ARTECHE, Luis eta LUENGO TEIXIDOR, Felix: "El proceso de modernización de Guipúzcoa (1876-1920)" in *Ekonomiaz: revista vasca de economía*, 9-10. zkia. (255-276. or.), 1988.

EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999.

EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009.

ELIZONDO, Mauro: "Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)" in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua.

ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo garaian (1936-1945)*. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2011.

ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Aranzadi Zientzia Elkarte, Galtzaundi Euskara Elkarte eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008.

ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950*. Critica. Bartzelona, 2010.

ESPINOSA MAESTRE, Francisco: "La represión franquista: un combate por la historia y por la memoria" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950*. Critica. Bartzelona, 2010.

FUSI, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975.

GARAI BENGOA, Juan Ramon: *Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2006.

GARAI BENGOA, Juan Ramon; GUTERREZ AROSA; Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Oñati, 2014.

GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA

LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: "“Leer y escribir”: desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)” in GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea* (311-341. or.). UPV-EHU. Euskal Herria, 2011.

GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: "Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)", in *Ikuska* aldizkaria, 3. zkia. (56-74. or.), 1993ko uztaila-iraila.

GIL VICO, Pablo: "Derecho y ficción: la represión judicial militar" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950* (251-368. or.). Critica. Bartzelona, 2010.

GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. UPV-EHU. Euskal Herria, 2011.

JACKSON, Gabriel: *La República española y la guerra civil (1931-1939)*. Biblioteca de Historia-Orbis. Bartzelona, 1985.

KORTAZAR-BILLELBEITIA, Jon: *Errepublikak, Guda Zibila eta Frankismoa tokiko eremu batean*. Beasain. Doktorego-tesia. UPV-EHU. 2017ko maiatzean defendatua.

LEDESMA VERA, Jose Luis: "Una retaguardia al rojo. Las violencias en la zona republicana" in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (ed.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo eta LEDESMA VERA, Jose Luis: *Violencia Roja y Azul. España, 1936-1950* (147-247. or.). Critica. Bartzelona, 2010.

LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996.

LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerrri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.

LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Gerra Zibila: Beasainen erorketa" in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerrri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.

LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain"

in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak). Donostia, 1988.

LUENGO TEIXIDOR, Felix: *Crecimiento y cambio social: Guipúzcoa 1917-1923*. UPV-EHU. Euskal Herria, 1990.

MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992.

MORENO GOMEZ, Francisco: *La victoria sangrienta 1939-1945. Un estudio de la gran represión franquista para el Memorial Democrático de España*. Editorial Alpuerto. Mostoles (Madril), 2014.

NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *Los años del terror. La estrategia de dominio y represión del general Franco*. La esfera de los libros. Madril, 2004.

NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta (koord.); ALVARO DUEÑAS, Manuel; ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo*. Ediciones Flor de Viento. Bartzelona, 2009.

NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: "El por qué y el para qué de la represión" in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta (koord.); ALVARO DUEÑAS, Manuel; ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo (21-52. or.)*. Ediciones Flor de Viento. Bartzelona, 2009.

OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Arabera. Arrasate, 2003 (2. edizioa).

OLAIZOLA ELORDI, Juanjo eta GARCIA GARMENDIA, Martin: *Bagoi fabrika eta haren eragina Beasainen eta Ordizian (1901/1925)*. Ordiziako Udala. Ordizia, 2016.

PARRA, Leire eta ARAMENDIA, Isabel: *Arrasate, langileek eraikitako herria*. Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Arrasate, 2004.

PRADA RODRIGUEZ, Julio: *Ourense 1936-1939. Alzamiento, guerra y represión*. Edicions do Castro. Ourense, 2004.

PRADA RODRIGUEZ, Julio: *La España masacrada. La represión franquista de la guerra y la posguerra*. Alianza. Madril, 2010.

RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa Donostia Kutxaren Gizarte-ekintza. Donostia, 1994.

UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (*Beasaingo Paperak* bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Comentarios de complemento al libro de Octubre Taldea "Una generación cortada. Arrasate 1.936", 1987. Arrasateko Udal Liburutegiaren Artxiboa. Uranga funtsa. 36 espedientea.

URANGA ARREGUI, Jose Maria: "La politiquería en Mondragón desde 1.930 en adelante". Arrasateko Udal Liburutegiaren Artxiboa. Uranga funtsa. 36 espedientea.

URANGA ARREGUI, Jose Maria: "Sindicato Libre Profesional" (dokumentu-bilduma). Arrasateko Udal Liburutegiko Artxiboa. Uranga funtsa, 36 espedientea.

URANGA ARREGUI, Jose Maria: "El Centro Obrero Católico". Arrasateko Udal Liburutegiko Artxiboa. Uranga funtsa, 36 espedientea.

VEGA SOMBRÍA, Santiago: "Manifestaciones de la represión franquista" in *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea*. 7 zkia. 2007.

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Maalako Errebala*. Arrasateko Udala eta Kutxaren Gizarte Ekintza. Arrasate, 2000.

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: *Mondragón en su historia (y en cuatro horas)*. Autoedizioa. Arrasate, 2014.

VILAR, Pierre: *La guerra civil española*. Critica. Bartzelona, 1986.

ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia (Beasaingo paperak* 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995.

ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (*Beasaingo paperak* bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993.

Kontsultatutako artxiboak:

Arrasateko Udal-Liburutegiaren Artxiboa.

Beasaingo Udal Artxiboa.

Gipuzkoako Foru Artxibo Orokorra. Tolosa (Gipuzkoa).

Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra. Ferrol (Galizia).

Kontsultatutako hemeroteka:

El Liberal

Euzko Deya

La Voz

Ahozko iturriak

Erabilitako elkarrizketak, kronologiaren arabera ordenatuak:

Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-III-25ean. Elkarrizketaren egileek artikulua egileari emandako elkarrizketa.

Egileak Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

Egileak Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

Egileak Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

Egileak Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-3an.

Egileak Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

Egileak Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

Egileak Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-30ean.

Egileak Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

Egileak Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

Egileak Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-IX-18an.

Egileak Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.